

## Sakanako Ibilaldi Handia >>9

## Altsasun Kulturaz Aske asteburua >>15

## Altsasun hondakinen %65eko gaikako bilketa erronka 2018rako >>7

## Sakandarren bizi itxaropena, Nafarroakoaren azpitik >>5

## Absolbituta Indar Gorriko bi altsasuararak >>8

## Film baterako castinga >>7



## Maiatzak jasotzera >>6



Mainamikirri, Altsasuko ipuina liburura >>11



Etxarri eta Arrankudiaga-Zollo senidetu dira >>7



Ikasleen Kontzertu Handia ostegunean >>15

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

  
MONDRAGON UNIBERTSITATEA



INGENIARITZA GRADUETAKO ATE IREKIAK

GOIERRIKO CAMPUSA

MAIATZAK 4

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



**Egoi Zorionak maitea!**  
Etxekoan partetik mu-xu handi handiak.

**Borja Zorionak!**  
Hogeitamaaauuyyy...  
Jarraitu beti bezain murrurutun izaten kar, kar, kar...Hori bai, Beti-"Erretzen", ama ohartu be, jajaja. Maite zaitugu.

**Erku Zorionak!**  
Txantreatik Altsasura eta bueltan, dagoeneko 37 urte eta aurrean du-zu onena bizitzeko. Familian partez, maite zaitugu petarda!!!

## Bazkideek deskontua

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideek:**

**3,50€**

## Apirila-maiatza 28-4

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Atzaparock, Embajada, Innombrables eta Zintz.** Apirilaren 28an, ostiralean, 19:30ean Lakuntzako kultur etxean. **Pop-Rock** lehiaketa.

**Mud Candies.** Apirilaren 28an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Barandi tabernan.

**Shockdown, Brutal Room, SLD eta Alerta Gorria.** Apirilaren 29an, larunbatean, 19:30ean Lakuntzako kultur etxean. **Pop-Rock** lehiaketa.

**Garabatos eta Kaskatak.** Apirilaren 29an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko gaztetxean. **Kulturaz Aske**



**Kontzertu Erraldoia.** Maiatzaren 4an, ostegunean, 17:00etan Altsasuko

kultur guneko zabalgunean (euriarekin frontoian). **Altsasu eta Alaitz** institutueta ikasleak.

### Dantza

**Dantzari txiki eguna.** Apirilaren 29an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Altsasun.

### Ikuskizuna

**Kulturaz aske ikuskizuna.** Apirilaren 28an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko Burunda frontoian.

### Zinema

**Es por tu bien.** Apirilaren 28an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 30ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Los pitufos.** Apirilaren 30ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**El bar.** Maiatzaren 4an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Legazpi-Altsasu (92 km.)**

Apirilaren 29an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik.

**Bernoako galtzada (47 km.)** Apirilaren 30ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirridulari taldeko mendi bizikleta** taldea.

### Mendi irteera

**28. Sakanako Ibilaldi Handia.** Apirilaren 29an, larunbatean, 7:00etan Irurtzundik. **Iratxo mendi elkarte.**

**Bikuña-Iturbaltz-Bikuña.** Apirilaren 30ean, igandean, goizean. Autoak Bikuñan utzita, bertako mendietatik buelta. **Dantzaleku-Sakanako mendi** sekzioa.

### Erakusketak

**Topaketa antzinako lanekin.** Maiatzaren 1etik 7ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Langileen autodefentsa sarea.** Apirilaren 28an, ostiralean, 19:30ean Arbizuko elkarte.

**Sakanako produktuak Sakanan kontsumituz.** Maiatzaren 3an, asteazkenean, 18:00etan Arbizuko Utzugane zentroan. **Gonbidatua: Slow Food Navarra. Sakanako Laborantza Foroa.**

**Kirola eta osasuna.** Maiatzaren 4an,

ostegunean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Hizlariak: Javier Oreja, Migel Angel Senosiain eta Mikel Moreno, Irurtzun-Lekunberriko osasun-etxeko medikuak.**

**Nunca estuvimos tan cerca.** Maiatzaren 4an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazan. **Hizlaria: Jon Maia. Altsasuko Gure Esku Dago.**

### Literatura

**Mainamikirri.** Apirilaren 28an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Castillo Suarez, Jose Mari Morcillo eta Enara Insausti.**



**Laura esaten zioten. Miren Odriozolaren borrokak.** Apirilaren 28an, ostiralean, 18:00etan Arbizuko udaletxeko batzar aretoan. **Liburu aurkezpena.**

### Mahai-ingurua

**Bargainen begiradapean.** Apirilaren 29an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Azokak

**Garagardo azoka.** Apirilaren 28tik

30era, ostiraletik igandera, 19:00etatik 2:00etara Etxarri Aranazko kale Nagusiko karpan.

### Bestelakoak

**Elkartasun eguna.** Apirilaren 29an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranazten.

**Bideokliparen grabazioa.** Apirilaren 30ean, domekan, 13:00etan Urdaingo plazan. **Gure Esku Dago.**

### Deialdiak

**Langile autodefentsa. Kapitalismoa suntsitu.** Apirilaren 28ean, ostiralean, 18:30ean Altsasuko plazan.

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Apirilaren 28ean, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Altsasukoak aske.** Apirilaren 28an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Apirilaren 28an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

**Preso eta iheslayek etxien nehi ttugu!** Apirilaren 29an, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranazko plazan.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Apirilaren 30ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Filmeko castingera aurkeztutakoen iritziak.
- Santi Ijurkorekin, SDiren 20. urteurrenaz.
- Altsasuko Kulturaz Aske egitarauaren aurkezpena



Apirilaren 30, igandean,  
zuzenean, 11:45ean  
**Osasuna-Deportivo**

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE





# Zurekin ezkonduko naiz

**Zure ezkontza, zure neurrira.** Eguraldi onarekin batera hainbat dira ospakizunetan pentsatzen jartzen direnak. Ezkontzetarako sasoi izaten da horietako bat. Bikote gehienek eguzkia goxatzen hasten deneko garaia probesten dute euren egun berezietarako. Sakanan badugu non aukeratu, Sakanan badugu zure neurrira egokituko diren hainbat zerbitzu.

## Loregintzan, azken joerak

**G**aur egun gero eta ezkontza gehiago zibilak dira eta leku irekietan eta mendi edo lorategi inguruetan ospatzen dira, horregatik dekorazioak ezberdinak izaten dira eta ezkontideen arabera giroak prestatu behar izaten dira. Photocall-a, setting-a, harrera gunea, koktel mahaia eta abar apaindu behar dira. Urte honetako joera "boho chic"-a da eta honek lore alaiak,

lumak, amets-arrapariak eta zapiak bezelako osagarriak ezartzera animatzen gaitu. "Natura" joerak eta material ekologikoetara eta berdeetara garamatza. Loreetan berrikuntzak daude hala nola, krasak, berde ezberdinak, basatiak eta tropikalak. Lore-sortak ezkontzaren eta soinekoaren arabera koak izango dira eta azpimarratzeko ere gonbidatuendako lorez eginiko eskumuturrak.



## Bideo bat oparitu

**B**ideoan bildu ditzakezu ospakizuneko bizipen guztiak: gonbidatuak, gertukoak, irribarreak, malkoak, dantzak eta egunean zehar gertatzen den guztia. Garrantzitsua izaten da profesionala ongi aukeratzea eta ezkontideei egokitutako bideoa prestatzea. Ospakizunen aurreko unek ere jaso daitezke eta profesionalen esku utzi amaierako produktu on bat izatea, betirako geratuko den altxorra izan-go baita.



## Orrazkeraren garrantzia

**I**leapaindegietan hainbat proba egiten zaizkie ezkontideei, askotan jantziko duten arrokek orrazkera baldintzatu dezakeelako. Hemen errepikatzen den elementua txirikorda da, forma eta tamaina ezberdinetakoa ikusi ahalko ditugu. Honekin batera ile-bildu informalak eta ilea solte eramatea aholkatzen dute. Ile soltea bada ondulatua eramatea modan dago. Loreekin egindako koroak edo diademak dira azken joerak.



## Eraztunak eta beste, ukitu bereziekin

**E**skaintza oso zabala denez, bitxiak ongi aukeratzeko komeni da. Eraztunetaz gain, erloju dotore bat, belarritakoak, lepokoak... ezkongaien ezinbesteko osagaiak dira. Eraztunetan urrez gain, zilarrez, platinoz eta titanioz egindakoak daude bitxi-dendetan eta estiloei dago-kienez ere aukera zabala, ele-

ganteak, modernoak, kolore ezberdinetakoak, urre zuria, horia, bi koloretako urrea, textura eta tamaina ezberdinak. Aukera dago, osagai horiek guztiak pertsonalizatzeko. Ezkongaiak aukeratu ditzakete eta bestela aukera polita litzateke oparitarako, egun horrek etorkizunean esanahi berezia izango baitu.



## Egunerako, aproposak diren jantziak

**E**gun berezi honetan zure burua ongi eta eroso ikustea garrantzitsua izaten da. Paz Torrasen emakumeak aktiboak dira, sormen handikoak eta neurria kontuan hartu gabe, modan egotea gustuko dutenak. Gure gizartean ematen den aldaketa jarraia bezalakoa da, bere burua un-

oro birsortzen ari da. Emakume hau ongi jaxten da, gozatzen eta bere buruarekin ongi sentitzeko. 1969an sortua, ehungintzan lau hamarkada baino gehiagoko esperientzia du etxe honek eta denboraldi bakoitzean euren diseinu eta sormenarekin sorpresak ematen jarraitzen dute, beti onerako.







Xabier Reparaz

# Erromesak bidean

**astekoa**

Santiagoko bideak Sakana zeharkatu behar omen du berriro ere. Erdi Aroko bidea berreskuratu nahi da, erromatarren Iter XXXIV Asturica-Burdigala ibilbidearen benetako nondik norakoari jarraiki. Galizako izarren zelai hartan artzain batek aurkitutako sarkofago erroma-

tarra Jesusen jarraitzailearena zela otu zitzaizen bertako agintariei aspaldi. Erromesak Europako azken muturrera erakartzeko bidea, europarrei barkamena eskaini zieten, eta haiek erosi.

Antso Nagusiak bidea hegoalderantz mugitu zuen XI. mende-

ko Nafarroan. Lizarrako hiria sustatu eta bideak ekarritako frankoek erreinuaren erdialdea aberasteko asmotan egindako operazioa izan zen hura. Bidearen muga baino, hark zekarren aberastasuna zengarrantzitsuen. Hargin, merkatari eta erromesak bidea sendotzeko prest.

Aymeric ezagunak han aurkitu zitekeenaren gida turistikoa ere idatzi zigun.

Orain ere bidearen helmugak baino, bideak berak du garrantzia. Antso Nagusiaren antzera, bidearen arrakasta eta diru zein turista emariaren alde egiten dute agintariek. Itsasperri

eta Aitzagatik behin igaro bazen, zergatik ez berriro ere bidearen emaria bere horretara itzuli? Beste bideekin lehiazada ordea zaila izango zaio galdutako erromatarra azpian darman bide zahar-berri honi. Galdutako erromesak Zamar-tzen agertzen hasiko dira sarri, eskolak zintzilik, motxila astunak bizkarrean dituztela. Kostako, Goierriko, Lizarrako edo gure bailarako bidetik badatoz ere, beti hartu beharko dute ostatu mendebaldeko bidean sosak banatuz.

## barrutik kanpora

# Marka itxura

Azken hilabeteotan arazo franko ikusi dugu etxeko elektrotresnak konpontzen dituzten enpresen jarduna dela eta. Izan ere, markako zerbitzu tekniko izan gabe markakoa balira bezala agertzen diren zerbitzu teknikoak atzeman ditugu. Bertze batzuetan, aldiz, edozein elektrotresna konpontzen

dutela erraten dute, nahiz eta horretarako behar den prestakuntza eta baliabiderik ez izan.

Batzuek internetek nola telefono mugikorrek ematen duten babesa baliatzen dute iruzurra egiteko. Hauek ez dituzte konponketak bermatzen, arazoan aintzinean ez dute erantzuten eta aurre-

kontua eta faktura ez dute ematen. Horretaz, interneteko kontaktu soil batengana jotzen badugu, iruzur egiten duen enpresa batekin topo egiteko arrisku haundiagoa dago.

Hori dela eta zerbitzu tekniko ofizialak eta ofizialak ez direnak badaudela jakin behar dugu. Euskarri tekniko ofizial zerbitzuek fabrikatzailearen baimena dute eta aipatutako markaren etxetresna elektrikoak konpontzera derrigortuta daude. Etxerako tresnak merkataratzen dituzten enpresek tresnen konponketa,

kontserbazioa eta zaintzea bere gain hartzen duen euskarri tekniko zerbitzu bat izan behar dute. Piezen horniketa ere eskaini behar du, modelo fabrikatzeari utzi eta gero, gutxienez zazpi urtetan pieza funtzionalentzat –bost urte 60 euroko prezioa baino gutxiagokoentzat– eta bi urtetan pieza estetikoentzat.

Bertzalde, hainbat marka konpontzen duten zerbitzuak badaude. Zerbitzu ofizial izan gabe marka bat erabiltzen dute zenbait enpresek marka horretako elektrotailuak konpontzeko. Zerbi-

tza horregatik ez da hobe izan ez txarragoa ere, baino bezeroak zeinetara jotzen duen jakin behar du. Izan ere, etxetresna garantian dagoela hondatzen bada saltzaileari erreklamatu behar zaio beti eta hau egon ezean fabrikatzeari, zerbitzu teknikoan lana eta faktura bere gain hartu beharko dutelako. Garantia bukatuta aldiz marka hori konpontzen duen edozein zerbitzu teknikora jotzeko aukera izan du, enpresa zintzoa dela ziurtatuta jakina.

**Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte**

## Hara zer dien

# Iturraskarri, bideak eta arraskak berritzeko egitasmo soziala

Iturraskarri izaera sozialeko proiektu bat da, eta Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Gizarte Enplegu Babestuko proiektuan parte hartzen dutenei prestakuntzako lanak ematea du helburu.

Proiektuak gizarte-izaera duen arren, turismoa sustatu eta bertako ondarea, kultura eta natura babestu nahi ditu.

2006. urtean jarri zen martxan. 12 urte hauetan, garbitokiak,

zubiak, iturriak, askak, konjuru-tokiak, ferratokiak, korrikalekuak eta berdeguneak berritu ditugu. Horretaz gain, herriak lotzen dituzten bide asko garbitu, markatu eta bertan mantentze-lanak egin ditugu. Proiektua eskualde osora zabaltzea eta bizi-lagun eta entitate askok babes-tea lortu dugu.

2017. urte honetan, honako ekimen hauetan parte hartzera animatu nahi ditugu:

1) 5 txango egitea Iturraskarriko bideetan barna, Irurtzungo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udal guztiak elkartuz. Txangoak helduei zuzenduta egongo dira eta "Donejakue bidea etapetan" ereduaren antzekoak izango lirateke. Guztiok bide horien edertasunaz, erabilgarritasunaz, aberastasunaz eta merezi duten ezagutzaz, errespetuaz eta zaintzaz sentsibilizatzeko. Herriak lotzen dituz-

ten Iturraskarriko bideak, Donejakue bideak, errege-bideak, errege-abelbideak, suebakiak, gurdibideak eta xendak dira, eta horiek guztiak historia, bitxikeria, edertasun eta ezagutza ugari gordetzen dute bere barnean.

Iturraskarriko bideetarako babesleak bilatzeko kanpaina bat egiten ari gara. 35 babesle behar ditugu 170 km inguru dituen sare osoa lotzeko. Bidearen bost kilometroko zati baten babesle izate-

ko aukera dago. Hori eginez gero, urtean behin eta maiatza iritsi baino lehen, babesleak txango bat egin beharko du zati horretan eta jakinarazi beharko digu zein egoeratan dagoen (margomarkak berritu behar diren, zuhaitzen baterori den, lurra erori den edota sasiak kendu behar diren).

Berehala zehaztasun gehiago emanen dira.

**Sakanako Gizarte Zerbitzuak**

## gutunak

### Udaberriaren elkartasuna, denok kalera

Susanna Sureda eta Xochitl Karasatorre. Etxarri Aranazko Elkartasun Eguna antolatzen ari den batzordearen izenean

Elkartasun Eguna burutuko da apirilaren 29an Etxarri Aranzan. Jon Gurutz, Asier, Luis, Unai, Juan Ramon, Hodei eta Oihan etxarriarrak izanen ditugu gogoan bereziki, aurten baita ere, nola ez, Adur, Oihan eta Jokin altsasuarrak. Apirilaren 17an, Preso Politikoen nazioarteko egunean, ehunka preso eta iheslari ohi Gernikatik mundura zabaldu zuten Bakea eta Askatasunaren

aldeko aldarria. Bakea eta Askatasunaz gozatu ahal izateko, ezinbestekoa da preso eta iheslari guztiak gure artean eta libre egoitea. Euskal Herrian ideia honekin bat egiten du jendartearen gehiengoak. Zer egin behar dugun Euskal Herriaren borondatea errespetatua izan dadin, bakea baino gatazka eta sufrimendua areagotzeko apustuan tematiz egiten duten Estatuak mugiarazte-

ko? Herriaren borondateari bidea irekitzeko sortzaileak eta kementsuak izatea tokatuko zaigu... beti garbi izanda gure indarra juxtu ki hortxe dagoela: herriaren nahi eta ilusioekin bat egiteko gaitasunean. Presoak beraiek ere jakitun dira horretaz, esateraino egiten ari diren eztabaidaren helburu nagusietakoa dela hain zuzen ere herriarekin komunikazio zubiak biderkatu eta elkarlana

sustatzea, Bakea eta Askatasunaren bidean. 2017an, Euskal Udaberriak Sakanan izanen du hasiera eta amaiera. Apirilaren 29an abiatuko da Etxarri Aranazko Elkartasun Eguna, eta uztailearen 30ean Lakuntzan amaiera ezin borobilagoa izanen duen Hatortxu Rocken 20. edizio ikusgarriarekin.

Apirilaren 29an Etxarri Aranzan elkar ikusiko dugu.

# Guaixe



**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

**KOLABORATZAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso eta Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

**ZUZENTZAILEA:** Maria Luisa Zelaia

**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

**DISEINU ZERBITZUA:** GK• Ainhua Etxeberria Pikabea •

gk@gkomunikazioa.eus

**ADMINISTRATIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995

**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:



**Nafarroako Gobernu**  
**Gobierno de Navarra**

**MAIATZAK 1, GAZTE DEIALDIAK:** Gaur, 19:30ean, Iruñeko Langileen Autodefentsa Sareak hitzaldia emanen du Arbizuko elkartean. Astelehenean, 11:00etan, Altsa-

suko plazan elkartuko dira Iruñera joateko. Arratsaldean, berriz manifestazioa egingen da, 18:30ean, Altsasuko plazatik abiatuta.

# sakanerria >>

## >> Arakil

### Aurreneko emakume alkatea

Paz Gonzalez Sagües da Arakilgo alkate berria. Baita kargu hori betetzen duen aurreneko emakumea ere. Udalardura berria martxoaren 13an egindako bilkuran hartu zuen Gonzalezek. Legegintzaldi honetan Arakilek duen hirugarren alkatea da Gonzalez. 2015eko udala hauteskundeetan Arakilgo Independenteez eskuratu zuten alkateza eta bere zerrenda-buru Ruben Goñi Urrozek alkateza hartu zuen. Baina Nafarroako Gobernuako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari kargua hartu ondoren utzi zuen udala. Gregorio Santesteban Nuñezek hartu zuen lekukoa 2015eko agorrilaren 27an eta ilbeltzaren aurreneko astean dimisioa eman zuen. Talde independenteak bost zinegotzi lortu zituen hauteskundeetan, baina une honetan zinegotzi kargu bat hutsik dago. EH Bilduko bi zinegotzirekin osatzen da udala.

## SAKANA

### Adinekoen Eskola, zahartze osasuntsua sustatzeko



Herritarrak Etxarri Arantzeko plazatik pasean.

**Etxarri Aranatz, maiatzaren 3an, 4an, 8an eta 10ean, 17:00etatik 19:00etara, Gure Ametsa Erretiratuen Klubean**

Osasun Departamentuak hirugarren adinekoen osasuna hobetzera bideratutako ekimena da. Adi-

nekoen Eskola. Haren helburua da zahartze osasuntsua sustatzea, pertsona horiek ahalik eta gehien euts diezaieten beren gaitasunei, ahalmen funtzionalei, autonomiarri eta bizi-kalitateari, mendekotasuna saihestuz. Helburu hori lor-

tzen lagundu nahi du eskolak, hainbat jarduerarekin: auto-zainketa fisikoak, mentalak eta sozialak sustatuko dituzten hitzaldiak, tailerrak, topaketak, etab.; hori guztia, Lehen Mailako Osasun Arretako Zerbitzuekin, Oinarriko Gizarte Zerbitzuekin eta erakunde sozialekin lankidetzan. Gainera, Nafarroako Gobernuak laster aurkeztuko duen zahartze aktibo eta osasuntsurako estrategiaren funtsezko ekintza-ildo da.

Osasuntsu zahartzea deritzon tailerra da lehenengo ekintza; ahalik eta bizi-kalitate onenarekin zahartzeko baliabideak eta trebetasunak garatu nahi dituzten 60 urtetik gorako pertsonen zuzendutako tailer hori. Bikoteka eskainiko dituzte tailerrak; batetik, esparru soziosanitarioko profesional batek eta erretiratuen elkarte edo klub bateko kideren batek. Lau

saio egingo dira: Zahartze-prozesua; Gure gorputza zaintzea; Gure burua eta emozioak zaintzea; Gure harremanak eta ingurunea zaintzea.

Fernando Dominguez Osasuneko kontseilariak jakinarazi zuenez, bai Adinekoen Eskola bai Gurasoen Eskola ekimenak irailetik aurrera Nafarroa guztira zabalduko dira. Horretaz aparte, online formatuan eta erdi aurrez aurreko tailerrak ere eskainiko dituzte, erabilgarritasun handiagoa izan dezaten.

### Doakoa

Baina alde zuzeneko izena eman behar da 848 42 34 50 telefono zenbakian, 08:00etatik 15:00etara, edo Adinekoen Eskolaren webgunean.

## SAKANA

### Aralar mendiko kudeaketa ezagutzeko ibilaldi eskaintza

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak Ingurumen hezkuntzarako eta boluntariotzari laguntzeko programa 2017 aurkeztu du. Nafarroako natur-ondarea eta han gobernuak egiten dituen lanak eta eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutarazteko doako ibilbide gidatuak, hitzaldiak, ate-irekien jardunaldiak, tailerrak eta bisitak antolatuko ditu. Jarduera horietan norbanakoek, taldeek eta ikastetxeek parte hartu dezakete.

Nafarroan barna banatutako 20 jarduera eskaintzen ditu guztira departamentuak. Ibilbide gidatuen artean Aralar basoen eta larren kudeaketa ezagutzeko eskaintza dago. Elkarrekin eta bestelako taldeekin zuzenduta dago. Ultzama eta Arakil barrutiko basozainek egingen duten gidari lanak eta haiekin hitzartu beharko da bisita eguna, urtean



barna izanen dena. Bi ordu inguruko ibilaldia aurreikusia dago eta azalpenak gaztelaniaz edota euskaraz emanen lituzkete.

#### Izen ematea

Doako eskaintza da baina alde zuzeneko izena eman beharra dago. E-postaz, ingurune.partaidetza@navarra.es helbidera idatziz, edo 848 426 126 telefonora 10:00etatik 14:00etara hots eginez.

## >>

### Bizi itxaropena, Nafarroako batz bestekoaren azpitik



Nafarren batz besteko bizi itxaropena 84 urtekoa da. Emakumezko nafarrek 86,9 urte bizi dira; Europako 300 eskualde baino gehiagoren artean bigarren tokian gaude. Gizonezkoak, berriz, emakumezkoak baino 5,7

urte gutxiago bizi dira, 81,2; Europako sailkapenean bizi itxaropenean seigarrenak gara. Sakana gizon-emakumeen bizi itxaropena Nafarroako batz besteko datu horien azpitik gaude. Horixe ikus daiteke Nafarroako Osa-

Bizi itxaropena		
Eskualdea	Gizonezkoak / urteak	Emakumezkoak / urteak
Irurtzun*	80	85,8
Etxarri Aranatz*	80,8	86,2
Altsasu*	79,2	85,6
Nafarroa	81,2	86,9

\*Osasun eskualdeak

sun Komunitarioaren Behatokiak oinarriko 57 osasun-eremuetan egindako azterketan.

### Hautzaroko obesitatea


0 eta 5 urte arteko haurren obesitatea heldu arazoarekin lotuta dago, eta gaixotasun kardiobaskularrak eta 2 erako diabetesa izateko arrisku handiagoarekin. Munduko Osasun Erakundeak "egokitza" jotzen du % 3tik beherako obesitate-porzentajeari. Irurtzun eta Etxarri Aranatzko osasun eskualdeak tarte horretan daude, Altsasukoak, berriz, bikoiztu egiten du.

5 urte arteko haur loditasuna	
Eskualdea	Indizea
Irurtzun*	2,5
Etxarri Aranatz*	2,6
Altsasu*	7,1

\*Osasun eskualdea

## C3 CITROËN BERRIA AS UNIQUE AS YOU ARE

ConnectedCAM Citroën™  
personalizazioko 36 konbinaketa  
Citroën Advanced Comfort®



CITROËNek nahiago TOTAL KONTSUMO MISTOA (L/100KM) / CO2 (G/KM) ISURIA : CITROËN C3: 3, 2-4, 7 / 83-109

facebook twitter youtube googleplus citroen.es

**AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com**

**SAKANA****Bertakoa kontsumitzeaz****Asteazkenean, 18:00etan, Arbizuko Utzaganen**

Sakanako produktuak ibarrean bertan kontsumitzeko aukeraz, salmeta zuzenaz, 0 kilometro kontzeptua... Horretaz ariko dira Sakanako Laborantza Foroan. Horretarako, Slow Food Navarra taldeko kideen eskarmentua baliatuko dute. Sakanako Garapen Agentziak sustatuta sortu zen Sakanako Laborantza Foroa. Ibarreko lehen sektorearen topagunea izan nahi du. Gainera, beste eskualdeetako esperientziak ezagutzeko aukera emana nahi du. Horretarako, aldi berean, beste elkarteetako kideak euren esperientzien berri sakandarrei azaltzera gonbidatzen ditu.

**Etxarri Aranatz****Garagardo azokarako dena prest****Gaurtik igandera 19:00etatik 2:00etara.**

Hirugarren aldiz antolatu dute garagardo azoka Etxarri Aranatzan. Aurreko bi urteetako esperientzia politaren eta sortutako giro ederraren ondoren, errepikatzea erabaki dute. Nagusia eta Artola kaleen artean jarritako karpak hartuko du azoka atzotik igandera. Handik pasatzen direnek kupeleko bost garagardo eta botilako beste zazpi dastatzeko aukera izanen dute; dozena bat marka desberdin. Ohi bezala jatekoa ere eskainiko dute: txerri ukondoa, oilasko hegoak, saltxitxak eta patata minak. Sukaldea 20:30etik 00:00etara izanen dute zabalik.

**Altsasu / Unanu****Katealde Madrilgo Gourmets Saloian****Balda-Artola unanuarren gazta Espainiako Gazta Hoberenen Txapelketako finalista izan da**

Kalitatezko Elikagai eta Edarien Nazioarteko Feria, Gourmets Saloia, hartu du Madrilgo Ifema erakustazokak astelehenetik ostegunera. Nafarroak bere stand du eta han herrialdeko 16 enpresak bere produktuak aurkeztu eta bisitariei hainbat jardura eskaini dizkiete. 16 ekoizleak *Reyno Gourmet* markakoak dira, hau da, aitortutako kalitatea duten elikagaiak egiten dituzte. Horien artean dago ahate-produktuak egiten dituen Altsasuko *Katealde* enpresa.

Azokan bertan Gourmet Gaztak espazioa zegoen eta horrekin batera Espainiako Gazta Hoberenen Txapelketa jokatu da. Ardi gazta erdionduen mailan Unanuko *Balda-Artolaren* gazta finalistetako bat izan da. Nafarroako standean, bestalde, jatorri izendapena duten hainbat produktuen berri emanda, tartean Idiazabal gaztarena.

**Etxarri Aranatz / Bakaiku / Iturmendi / Ziordia****Jaso maiatzak!****Maiatzaren aurreneko egunean maiatzak zutituko dituzte etxarriar, bakaikuar, ziordiar eta iturmendiarrak. Azkeneko horiek arratsaldean, gainontzekoek eguerdian**

Azienda mendira igotzeko garaia heldu dela iragartzen dute astelehenean zutituko diren maiatzak, pago enborrak. Lanari ekiten aurrenak **bakaikuar** izanen dira.

9:00etan herriko plazan elkartu eta mendirantz joko dute. Gora 11:00etan iritsi eta maiatza jasotzeko aurre-prestaketei ekinen diote. Baizaren bestaldean, Hartzabalen, **etxarriarrak** langintza berean ariko dira eguerdian eta pagoa zutitzeko lanari 12:30 aldera helduko diote.

**Ziordian** bi maiatza zutituko dituzte. Aurreneko txipudian jarriko dute. 10:00etan hara joateko deia egin

diote herritarrei. Beharrezko prestatetak egin ondoren, 10:30ean jasoko dute herriko maiatza. Hori egin eta gero, mendate zaharreen barna mendira igo eta eguerdian maiatza jasoko dute. Lan guztiak despiduta, elkartasun herri bazkaria izanen da 14:30ean. Bazkaritik ateratzen den dirua Luisito laguntzeko izanen dira. Olaztiarra gauregun Ziordian bizi da. Auto istripu larria zuen eta bere osasuna

hobetzeko Kuban errehabilitazioa egiten ari da. Jasotakoarekin haren familiari laguntza eman nahi zaio. Maiatzak jasotzen azkenak **iturmendiarrak** izanen dira. Astelehenean, 18:00etan, ekinen diote lanari aldameneko herrietako makinabat lekukodituztela. Kintoak arduratuz dira basoan pagoa bilatzeaz, azala kentzeaz, besteak beste. Izan ere, maiatza bota ondoren ateratzen den diru-etekina kintoendako izanen da.

**Etxarri Aranatz****Preso eta iheslariekin elkartasunez**

bakoitzeko talde bana lehiatuko da, hau da, zazpi. Guztiak zazpina proba gainditu beharko dituzte.

**Egitaraua****11:00etatik** aurria Puzgarriyeka Zorri Azoka.**12:00ten** Presuen aldeko super herri-ginkana.**14:30ien Herri bazkaye.****17:30ien** Poteue elektrotxaranga gin.**20:00ten** Preso eta iheslaye txien nehi ttugu! Manifestaziye.**21:00etan** Musike plazan.**22:00etan** Zezensuzkue.

Euskal preso eta iheslarien Euskal Herriratzea eskatu eta haien eskubideak bermatuak izan daitezela exijitzeko, beste behin, Elkartasun Eguna antolatu dute Etxarri Aranatzan. Aurtengo berritasun nagusia eguerdiko ginkana da. Herriko preso

**Ekoizleen eguzkitara**

Gazta, karakolak, ukenduak, ezti, ardoa, hestekiak, ogia, ereiteko Pirinioko patata... hala bete ziren 16 salmahai Etxarri Aranatzko plazan. Sakanako ekoizleak biltzen dituen Belardi elkarteak udalaren laguntzaz antolatutako Ama Lur azokan opa zitekeen hori guztia. Seigarren edizioa du eta egonkortu egin da hitzordua. Jendea poliki hurbildu zen

azokara, baina eguraldia lagun zenez, aurretik bestelakoak egin zituzten eta jende emaria eguerditik aurrera nabaritu zen azokan.

Salmenta postuekin batera, azien da erakustaldia eta erakustaldiak izan ziren ere: gazta egitea, ardi motzailak edota artilearen lanketa. Aitor Mendozak eta Oihane Rodriguezek Arbizun hazitako 100 kiloko Euskal Txerria erre zuten eta dastatzera eman zuten, ardoaz lagunduta. Guztia despiditu zen.

**Altsasu****Alde Zaharreko Euskal Festaren aurrekoa**

16. aldiz Altsasuko Gazte Asanbladak Alde Zaharreko Euskal Festa antolatu du. Egitaraua asteartean hasi eta larunbata bitartean luzatuko da. Egitarauaren zati mamitsuena azken bi egunetarako utzi badute ere, motorrak berotzeko, egunero bada zerbait antolatuta.

**Egitaraua****Maiatzak 2, asteartia**  
**18:00etan** Britainiako ZAD hitzaldiya, gaztetxien.**Maiatzak 3, asteazkena**  
**19:30ean** Asanblada irekiya, plazan.**Maiatzak 4, osteguna**  
**18:00etan** Euskalkia ikasten jokiekin, gaztetxien.**Arbizu****Loreak eta gehiago udaberri azokan**

Herriko hainbat etxe edertuko dituzten lore eta landareak erosi zituzten hainbat arbizuarrek igandean. Udaberriko azokan, ordea, bazen gehiago: barazki salmenta postua, esku-pilotak, Urdaingo xaboiak, Mikel Berastegi (ezti), Tomas Mauleon (zura eta adarrak), Miriam (oihalak eta artilea), Maika (haziak

eta ukenduak), Ines (jateko haziak, bero-zakuak), Batuta birziklatze laborategia, Maite Miguel (zeramika), Idoia Zufiaurre (ilustrazioak), Enara Insausti (argazki albumak) eta Irantzu Gartzia (Zergatik ilustrazio liburua). Trukerako mahaia Arbizuko udal liburutegiak jarri zuen. Eta Arbizuko Gure Esku Dagoko kide-ektivistorak pintxoak eskaini zizkieten gose ziren guztiei. Jendea batean eta bestean ibili zen.

[www.embutidosarbizu.com](http://www.embutidosarbizu.com)

Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16



## SAKANA / Altsasu

## Filmerako castinga

Jacques Audiard zuzendariaren Les Frères Sisters filmaren zati bat Urbasa-Andian filmatuko da garagarrila edo garilean, aste bat inguru eta Altsasun, atzo castinga egin zuten



Herritarrak hilaran Gure etxean.

Mendigune bat islatu behar dute filmean eta inguru horretan bizi diren ile luze eta bizardunak diren pertsonen bila dabilta gaurko castingean. "Hiri handietatik pixka bat baztertuta bizi zen jendea, mendiko langileak", azaldu digu Jorge Guardado filmaren estatuko casting zuzendariak. Altsasun 150 bat pertsonaren berri jaso nahi zituzten gero haien artean aukeratzeko. Aukeratuak maizta akaberan jakinen dute. Atzoko castingera joan zirenek euren datuekin fitxa bete, dokumentazioa eman eta argazkia ateratu zieten, betelako infomazioa emateaz aparte.

## Aurreneko parte-hartzaileak

Lehen orduan Bakaiku, Altsasu, Aguirain, Audio, Bakio, Bilbo, Iruñea, Lizarra edota Zuastiko jendea izan da casting-etik pasa dena. Ibarretik kanpoko gehienak halakoetan eskarmentua zuten jendea ziren, batetik bestera joaten diren lagun koadriak. Ez horrela sakandarrak. Esperientzia "polita", "berria" bizitzegatik, jendea ezagutzea edota "aste-bururako anekdota bat izateko" animatu dira casting-eant parte hartzera. Ahizpak animatua joan zen bat, altsasuarra izanda kanpoko ote den maiz galdetzen dioten beste bat ere pasa da castingetik.

## Altsasu

## 5. edukiontzia ezarpena urte bat atzeratu da



Dagoeneko altsasuar batzuk materia organikoa konpost bihurtzen dute.

**Altsasuko Udalak herritarrak 5. edukiontzia erabiltzeko izen ematera animatu ditu. 2.260 etxebizitzetatik soilik 93k eman dute izena**

Gaur egun Altsasun hondakin gaikako bilketa %27koa da. Europako Batasunak eskatzen du 2020rako gutxienez %50ekoa izan behar duela. Helburu hori lortzeko Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak akordioa sinatu zuten. Urte akaberarako gaikako bilketa %65era igotzea jarri zuten helburu. Bitartekoak ere zehaztua daude: 5. edukiontzia eta auto edo auzo konposta. Baina altsasuarrek hura erabiltzeko ez dute izena eman. Gauzak horrela, Mank-ekin adostuta, udalak, aho batez, 5. edukiontzia ezarpena urte bat atzeratzea adostu zuten herenegun. Helburua lortzeko data berria 2018 abenduaren 31 da.

Bitartean Mank-ek kontzientziazio kanpaina berria egingen du. Udal bilkuran Goazen Altsasuk eskaera eta proposamen egin zituen. Batetik, helburua lortzeko Mank-ek egindako jarduerak jasotzen dituen eta haien balorazioa jasotzen duen txostena egitea eskatu zuten. Aldi berean, aurrera begira egin behar diren jardueren plana aurkezteko eskatu zuten. Altsasuarrek jakinarazitako proposamenak ere azaldu zituzten Goazen Altsasukoek: informazio

bulegoaren kanpoko aldean arreta ordutegiaren eta telefonoaren berri ematen duen kartela jarzea, batetik, eta, bestetik, jendea biltzen den azoka moduko uneetan informatzaileak bulegotik kalera ateratzea interesgarria litzateke, sentsibilizazio lana bertatik bertara egiteko. Azkenik, azaroan Mank bidalitako informazio gutuna etxe guztietan ez dela jaso gaztigatu dute.

Mank-etik jakinarazi digutenez, informazio kanpaina berria maiztzean hasiko dute. Bi oinarri izanen ditu. Alde batetik, organiko banatzearen onurak azaltzea, hauda: birziklatze tasa igo, gutxiago kutsatzea, zabor tasan %15eko deskontua... altsasuarrek organiko banatze hiru aukeretako batean izena eman dezaten. Bestetik, gaur egun dauden frakzioen banaketa egokiago bat egitea.

Baratzekobide plazako lokomotoran Mank-ek hondakin bilketa sistema berriari buruzko informazio bulegoa zabaldu du. Interesatuak asteazkenetan pasa daitezke handik, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Bulegora joaterik ez dutenek 900 730 450 doako telefonoaren bidez izena emateko aukera izanen dute. Informazio telefonoa asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara, dago erabilgarri. +www.guaixe.eus

## Etxarri Aranatz

## Galdeketetatik senidetzera



Dantzariak agurra dantzatu zieten udal-agintariei.

**Etxarri Aranatz eta Arrankudiaga-Zollo senidetu dira. Bi herriak izan ziren estatus politikoari buruzko herri galdeketak egiten lehenak, 2014an. Senidetuta bi herrien artean lotura eta harreman kulturalak eta pertsonalak ezarriko dituzte, Euskal Herriak gaur egun duen lurralde-banaketa gainditzen lagunduko dutelakoan**

Igandean Eneka Maiz Ulaiar alkateak azaldu zuenez, "demokrazia-aren aldeko eta erabakitze eskubidearen aldeko urte historikoa izan zen hura, lehen aldiz herritarrek nahi izan zutena adierazi baitzuten, demokrazia zuzenaren bitartez". Bi herriak aitzindariak izan ziren bi plataformek lan egin zutelako eta haiei eskerrak eman zizkien.

Alkateak esan zuenez, "erabakitze eskubidea Herrien oinarritzko giza-eskubidea da, Herriok geure estatus politikoaren jabe izan gaitzen, gure garapen ekonomikoan, sozialean eta instituzionalean burujabe izan gaitzen, eta gure instituzioak libreki egituratu ditzagun, kanpo interjerentziarik gabe, eta berdintasun printzipioaren arabera. Aukera berdintasuna aldarrikatzen dugu gure Herriarendako". Nazio Batuen Gutunak eta Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Itunak, besteak beste, hala aitortzen dutela gaztigatu zuten.

Maizek esan zuenez, "herri batek bere etorkizunari buruzko

eztabaida baketsua egitea, eta etorkizunean zer izan nahi duen askatasunez erabakitzea, egin daitekeen ariketarik demokratikoena eta zintzoena da. Izan ere, gaur egun erabakitze eskubidea Europako hainbat lurraldetan gauzatzen ari dira, eta guk ere eskubide hori gure herrian gauzatu ahal izatea aldarrikatzen dugu, hori baita hemengo gehiengo sozial, politiko eta instituzionalak eskatzen duena.

## Ekitaldia

Maizek eta Itziar Duoandikoetxea alkateak senidetze agiria sinatu zuten udaletxean. Elkarrekin agintze makilak eta opariak trukatu zituzten. Ondoren, estalopean, udal ordezkariak senidetzearen lekukotza uzten duen plaka agerian utzi zuten eta aurrekua dantzatu zitzaizen. 40 bat pertsonak parte hartu zuten ondorengo senidetze bazkarian.

Etxarriko A13 plataformaren izenean Manu Gomezek gogorazi zuen haiek ere indako hazia 100 herritan baino gehiagotan ernalduta dela. Erabakitze eskubidea herritarren eta erakundeen esku egon behar dela esan zuen. Arrankudiaga-Zolloko Ados plataformako Joseba Martinek bidea zabalteagatik eta elkarlanean aritzeagatik eskerrak eman zituen. +www.guaixe.eus

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Asteleheneetik ostiralera  
**Eguneko menua**  
9€

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

**Txalaparta**

**Taberna**

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**kaxeta**

liburudenda / paperdenda  
Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

Ogiaren artisaunak

**PORTUKO** okindegia

ETXARRI-ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

## SAKANA

# LAB: prekarietatea hedatuta dago



**Maiatzak 1ean Iruñeko Gaztelu plazatik 12:15etan abiatuko da LABen manifestazioa**

Langilearen Egunaren bezperan Sakanako LABek ibarrak bizi duen sozio-ekonomia egoeraren inguruko hausnarketa publiko egin du. Sindikatuko arduradun Gaizka Uhartek esan duenez, “enpleguan egoera hobetu dela nabari da”. Gora egin duten Gizarte Segurantzako eta behera egin duen langabezia datuetan oinarritu da hori esateko. Gaineratu duenez, “25 enpresa dira enplegu gehien sortu dutenak eta, kontrako aldean, badirudi komertzio txikiak direla egoera okerren bizitzen ari direnak, 6 langile baina gutxiagoko enpresen kopuruak behera egin baitu.

Uhartek, hala ere, nabarmendu du “enplegu datuak hobera egin badute ere, egin diren kontratuak behin behinekoak dira eta baldintza kaxkarretan egin dira”. Azaldu duenez, kontratazioen %90 baino gehiago behin behinekoak dira, emakume eta gazteak dira lan egonkor bat bilatzen zailtasun gehien izaten ari

direnak. LABetik bestelako datuak eman dituzte ere: enpresatan negoziazio kolektiboa erabat geldituta dago, ordu estrak ugaritu dira eta lanaldiak luzatu. “Orokorrean esan dezakegu aberastasuna eta lana ez dela

banatzen ari. Esan dezakegu prekarietatea hedatuta dagoela eta ondorio zuzenak dituela enpleguaren sorreran edo langileon eros ahalmenean. Zailtasunak beraz, bizi modu duin bat aurrera ateratzeko orduan”.

Enpleguaren bilakaera Sakanan	
Seguritate Sozialeko datuak kontutan hartuz	
Urtea	Langileak
2008	6.722
2013	4.532
2015	4.130
2016	4.540
2017	4.821

Langabezia INEM en datuen arabera	
Urtea	Langabetuak
2013	2.000
2016	1.256
2017	1.142

Sektoreen arabera bilakaera 2015-2017			
Sektorea	2015	2016	2017
Zerbitzu pribatuak	1.228	1.322	1.379
Industria	2.228	2.601	2.864
Administrazio publikoak	224	236	278
Eraikuntza	247	196	365
Nekazaritza eta abeltzaintza	76	71	69
Soziosanitarioa	127	114	134
Irakaskuntza	185	200	197

Enpresa kopurua, langile kopuruaren arabera						
	2015		2016		2017	
	Langile kop	Enpresa kop	Langile kop	Enpresa kop	Langile kop	Enpresa kop
<6	939	544	954	566	929	549
6tik 30era	1.567	126	1.743	139	1.874	143
>30	1.624	24	1.843	24	2.018	25
<b>Guztira</b>	<b>4.130</b>	<b>694</b>	<b>4.540</b>	<b>729</b>	<b>4.821</b>	<b>717</b>

## LABek Sunsundeguin “kontratazioetan egiten ari den iruzurra” salatu du

**“Proposamen desberdinak egin ditugu behin behinekotasuna %42tik %20ra jaisteko, negoziazioa eta akordioak bilatuz. Enpresaren itxikeriak agortuzt ematen du bide hau eta, ondorioz, salaketa eta mobilizazioaren bidea da ikusten den bide bakarra”.**

LAB sindikatuak azaldu duenez, Sunsundegui gaur egun 330 langile ditu, baina behin-behinekotasun tasa %42koa da. LABekoek azaldu dutenez, “70 langileri aurtun kontratua bukatuko zaie. Guztiek bi urte baino gehiago daramate enpresako lan estrukturala egiten”. Gaineratu dutenez, 50 kaleratuko ditu, beste batzuegatik ordezkatzeko. “Zein langile geratuko diren ala ez erabakitzeke garaian irizpide diskriminatzaileak erabili ditu, irizpide ideologikoak” erabili dituzte-

la salatu du LABek.

Sindikatuaren iritziz, enpresak “kontratazioa, langileak banatzeko tresna gisa eta prekarietatea hedatzeko tresna gisa erabiltzen ari dira. Kaltetutako langileak obra edo zerbitzu determinatuko kontratu ezberdinak gehitzen dituzte enpresak duen ohiko eta egiturazko lan karga aurrera ateratzeko”. LAB-ekoek iritziz, “gaur egun, lan karga nahikoa dago enpresan kontratu mugagabe gehiago egiteko”. Ordu estra asko sartzen direla (lan ikuskaritzak askotan enpresa zigortu du) edo enpresak urtero lan ordu kopurua handitzeko saiakeran adibide gisa jarri ditu.

Enpresaren politika “bere proiektu industrialaren aurka-koa” dela uste dute LABen.

“Enpresaren datuen arabera lan karga mantendu egiten da eta ondorioz pertsona hauek kaleratu ostean beste batzuk kontratatzea behartuak egonen dira. Beraz, pertsona berri hauek, berriro ere formatu beharko dira”. Jokabide horren ondorioak, LABen ustez honakoak lirateke: lan poltsa prekario bat sortzea eta produkzioan gain kostu bat sortuz, proiektuari kalte eginez. Prekarietateari aurre egiteko eta kontratazioan jasotzen den iruzurrari aurre egiteko asmoa dutela gaztigatu dute sindikatutik. Horregatik, “kontratuak bukatzen dituzten pertsona guztiei, beren auzia epaitegira eramateko proposamena egiten diegu, kaleratzeak iruzurra direlako”.

## SAKANA

## ELA bere autonomiaren eta gauzak aldatzeko eskubidearen alde

**Manifestazioa Iruñeko Gurutze plazatik abiatuko da 12:00etan**

Sakanako ELAko arduradun Gorka Viergek esan digunez, “aurten ere, ELAren autonomia aldarrikatu behar da, langileen defentsan esparru sozial, politiko eta ekonomikoak kontuan hartu behar direlako, ezinbestean, eta sindikatuak esparru horietan ere eragiteko beharra dauka”. Viergek azaldu digunez, “ELAko oinak lurreen ditu, eguneroko murrizketak eta soldaten zein lan baldintzen okertzeko joera pairatzen dituztenekin gaudelako. Aurtengo leloaren gakoa hor dago. Langile asko antolatzen ari dira, bizi eta lan baldintza duinen alde borrokatzeko. Hauek ere, Nafarroan benetako aldaketa politikoa eta soziala gauzatzearen alde ari dira”. Gogorazi du ELAko inoizko ordezkariarik handiena lortu du Nafarroan: %23,09koa. “Sekulazanez dugun ordezkariarik handiena da. Etengabeko aurrerapauso honek berresten du ELAren apustua, autonomia, gertutasuna eta eredu aldarrikatzailea, oinarritik langileak lantokiz lantoki antolatzea helburu duena”.

## UGTk eta CCOOK deialdi bateratua egin dute

**Astelehenean, 12:00etan, Iruñeko autobus geltoki zaharretik aterako da manifestazioa**

Bisindikatuek elkarrekin deitu duten manifestazioan egungo politiken berehalako aldaketa eskatuko dute. “Halakorik gabe, krisia ez da sekula akatuko gizartearen gehiengoarendako, langile klasearendako. Exijentzia soziala, ekonomikoa eta demokratikoa da”. Maiatzaren 1eko manifestazioak honako leloa izanen du: aitzakiarik ez: enplegu egonkorra, soldata justuak, pentsio duinak eta gizarte babes gehiago”. +www.guaixe.eus

## Langileen egunerako deialdi bateratua

**CGT, CNT, ESK, Soldari ea Steilas sindikatuen manifestazioa Iruñeko baratxearen plazatik aterako da, 12:00etan**

Euren aldarrikapenak partekatuko dituzte Maiatzaren Lehenean. Bostek bazterkeria eta prekarietateagelditza eskatuko dute Iruñeko kaleetan barna. “Krisia deitu zuten harripaketaren etekinak gutxi batzuk gozatzen dituzten bitartean, herri-tarren gehiengoak zigortu gaituzten erabateko prekarietateari eta desberdintasunari aurre egin behar diegu”. +www.guaixe.eus

## Indar Gorri auzian bi altsasuarren inputazioa artxibatua

**Epailearen arabera ez dago nahikoa indizio “talde kriminaleko kide” direla adierazteko. Fiskalari 20 egunetan akusazio edo sobreseimendu idatzia aurkezteko eskatu dio**



Iruñeko 2. Instrukzio Auzitegiko epaileak Indar Gorri taldeko 21 kide epaitzeko zantzuak daudela ebatzi du. Guztiei talde kriminaleko kide izatea eta Osasunaren segimenduaren aitzakian, “beste hirietara joaten ziren lesio delituak eragitera, haien larritasuna inporta gabe, edo kontrako muturreko taldeko kideekin “aurrez aurreko fisiko eta biolentoa” bilatzen zuten “talde borrokatan” parte hartuz.

Epaileak instrukzioa despeditzerakoan 11 auzipeturen kontrako akusazioa artxibatu du. Haien artean daude bi altsasuarrik. “Talde kriminaleko kide direla adierazteko instrukzio eginbideak ez dira nahikoa. Talde kriminalean parte hartu edo kide diren ondorioztatzeke haien kontrako datu hain sendorik ez dago”. Epaileak dioenez, “interbenitutako elkarrizketak ez dira akzio bortitzetan parte hartu izanaren adierazle garbiak”. Froga materialetatik ere halakorik ondorioztatzerik ez dagoela dio epaileak. Instrukzio epaileak ondorioztatzen duenez, “Indar Gorriko kide izatea, oso aktiboa izanda ere, ez da nahikoa talde kriminaleko taldeki delitua egoteke”. Hau da, Indar Gorriko “kide izatea eta parte hartze aktiboa izatea ez da delitua”. Horregatik, epaileak 11 auzipetuen kontrako akusazioa behin behinean artxibatzea erabaki du. Fiskaltzak 20 egun ditu epaiketa egitea eskatzeko, auzia artxibatzea eskatzeko edota eginbide osagarriak eskatzeko.

## Errepublikako balioak gorespene

Izquierda Unidak “askatasuna, elkartasuna, errespetua eta ilusioa erakutsi zizkiguten gizon-emakumeak omentzeko” ekitaldia larunbatera atzeratu zuen. Arturo Carreñok ekialdian adierazi zuenez, “ordutik 86 urte pasa dira, eta beste politika erregimen batzuen emaitzak herritarrek ez dituzte inondik inoradisfrutatu”. Langabetuak, lan baldintza eskasak dituztenak, emigratututuzten gazteak, pobrezian bizi diren haurrak, elikagai banku eta Caritas-tik pasatzen diren pertsonak gogoran izan zituen. “Hau desastre bat da eta inork ez du konponbiderik jarritzen”. +www.guaixe.eus



## ATLETISMOA:

**BEUNZA BOSGARRENA HIRU HERRI LASTERKETAN:** Igandean Hiru Herri lasterketa jokatu zen (10 km). 693 korrikalarik

hartu zuten parte, guztira, tartean sakanadar ugari. Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarra 5.a sailkatu zen (39:49).

## Mendia

## Goazen Sakanako Ibilaldira!

Bihar, larunbatean, goizeko 6:00etan abiatuko da Ibilbide Luzea (54 km), 7:30ean Ibilbide Motza (27,5 km) eta 9:30ean Ibilbide Txikia (14 km). Iratxok 1.000 pertsonendako azpiegitura prest dauka

Irurtzungo Iratxo elkartearen mugimendu handiko egunak dira hauek. Izan ere, bihar, larunbatarekin, XXVII. Sakanako Ibilaldia antolatu dute. Nafarroako mendi martxetan beteroena da Irurtzungoa, proba ederra eta ez lehiakorra. Ibilaldi Luzea Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituan sartua dago; Ibilbide Motza, aldiz, Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Zirkuituan. Asteartean aurkeztu zuten Iratxo elkartearen mendi sekzioaren presidentek Pello Altzuetak, Atakondoako Guraso Elkartearen ordezkari Emi Sanzek, Nafarroako Mendi Federazioko presidentek Martin Montañesek eta Nafarroako Kiroleta Gazteria Institutuko zuzendariorde Primitivo Sanchezek.

Mendizaleek hiru distantzien artean aukeratu dezakete: Ibilbide Luzea (54 km), Ibilbide Motza (27,5 km.) eta Ibilbide Txikia (14 km). "Azken hau aurreko urtean antolatu genuen lehenengoz, belaunaldi aldaketa sustatu eta txikiak mendira erakartzeko. Gure azpiegitura guztia jarri dugu euren eskutan, baina Atakondoa ikastetxeko Guraso Elkarteak dira motor nagusia. Horrela, gaztetxoak nagusiez lagunduta joaten direla ziurtatzen dugu. Esperientzia ederra izan zen eta aurreko urtean hala izatea espero dugu" adierazi zuen Pello Altzuetak.

## Izena ematea, zabalik

Larunbatean, goizeko 5:00etatik aurrera, Ibilbide Luzerako izena ematea eta 6:30etik 7:30era Ibilbide Motzerako (15 euro; langabetuek 5 euro.). Ibilbide Txikiak, 8:30etik 9:30era, Iratxon (14 urtera arte 4 euro eta 14 urtetik gorakoek, 8 euro).

## Sakanako Ibilaldiko hiru aukerak



**Ibilbide Luzea** (54 km, 3.388 m desnibela). Goizeko 6:00etan, Atakondoatik. Urrizola, Txurregi, Euskal Herriko erdigunea, Beriain (1.498 m), Uharteko Arakil, Aralarko San Migel (1.242 m), Ata bailara, Madotz, Larrazpil, Goldaratz, Latasa, Trinitatea (999 m) eta Irurtzungo plaza. 11/12 ordu inguru.  
**Ibilbide Motza** (27,5 km, 1.344 m desnibela). Goizeko 7:30ean, Atakondoatik. Urrizola, Gaztelu (1.008 m), Ekai, Itxasperi, Goldaratz, Latasa, Arrantzaleen xenda eta Irurtzungo plaza. 6 ordu inguru.  
**Ibilbide Txikia** (14 km, 736 m). Goizeko 9:30ean, Atakondoatik. Etxeko txikiaren egiteko ibilbidea. Trinitatera (999m) igoko dira, Latasara jaitsi eta Arrantzaleen xendatik Irurtzungo plazara helduko dira. 4/5 ordu inguruko ibilbidea.

## Erdi Aroko Agiri herri hustua ezagutzeko aukera

Hiru ibilbideak aurreko urteko berak izango dira. "Ibilbide Luzean aldaketa txiki bat, bariante bat sartu dugu. San Migeletik behera Atako harratetik barna jaitsiko gara, eta harratea utzi bezain pronto Agiri, Erdi Aroko herri hustuaren aztarnetatik pasako gara. Bertan egiten ari diren azkeneko indusketak ikusteko parada emango digu horrek eta bertako iturrian ur freskoa edateko aukera" azaldu zuen Iratxoko ordekariek.

## 796 mendizale izena emanda

Aurreko urtean 1.165 mendizalek hartu zuten parte Sakanako Ibilaldian, hotza, euria eta elurra ere aurrez aurre zituztela. Aurten antzeko kopurua hartzeko nahikoa azpiegitura du prest Iratxok. "Eguraldi ona iragarri dute eta pentsatzen dugu zifra horien inguruan ibiliko garela. Aurretik izena emateko epea asteazkenean itxi zen eta 796 daude izena emanda, 458 handian, 238 motzan eta 100

txikian. Eta bihar, egunean bertan, oraindik izena eman daitekeenez..." aipatu zuen Altzuetak.

## Sakanako Ibilaldia, "klasikoa"

Sakanako Ibilaldia badu zerbait. Nafarroako mendi ibilbide zaharrena da, eta nahiz eta gaur egun ibilaldi eskaintza zabala egon, Sakanako Ibilaldia ez du behera egin. "Antolakuntza bikaina, batetik, eta mendi martxaren ibilbidea bera, bestetik, gakoak dira mendizaleak erakartzekoan. Eta Sakanako Ibilaldia mendi martxak gustuko dutenendako klasikoa bilakatu da. Mendizale askok euren egutegian gorritz markatuta dute, data ez pasatzeko" nabarmendu zuen Primitivo Sanchezek.

Sakanako Ibilaldia mendizaleen festa handia izan nahi du. Ingurumena zaintzearen garrantzia azpimarratu nahi izan du antolakuntzak. "Bitarteko guztiak jartzen ditugu zaborrak behar bezala jasotzeko eta horiek erabili eta gure ingurumena zaintzea-

ren garrantzia ohartarazi nahi dugu" nabarmendu zuen Altzuetak. "Mendizaleak etortzera animatu nahi ditugu, egun bikaina pasatzera animatu daitezela. Egun hori ere modu berezian bizi da Irurtzuen" gaineratu zuen.

Ibilbidean barna hornidura eta kontrol guneak izango dituzte eskura mendizaleek eta DYAK probaren martxa zainduko du. Proba bukatuta, guztiak kamiseta eta diploma jasoko dute. Gainera, mendi materiala zozketatuko da. Guztia behar bezala prestatzeko, 70 pertsona inguru ariko dira lanean. "Herritarren babesa eskertu nahi dugu, eta probako babesleena. Nafarroako Mendi Federazioren eta Nafarroako Kiroleta Gazteria Institutuen eta babesleen laguntzarik gabe oso konplikatua litzateke halako tamaina duen martxa antolatzea. Eskertuta gaude" nabarmendu zuen Altzuetak.

## Jendeak paisiaz goza dezala

Nafarroako Kiroleta Gazteria Institutuko Primitivo Sanchezek adierazi zuenez, "Sakanako Ibilaldia ekimen interesgarria da, kirola eta natura batzen ditu. Gainera, norberaren sasoiaren arabera, distantzia ezberdinen artean aukeratu daitezke. Guraso elkartearen inplikazioa ere aipatzeko da, adin txikiak erakartzeko lanean". Iritzi bereberkoa zen Nafarroako Federazioko presidentek Martin Montañes. "Hau ez da ibilaldi lehiakorra; horretarako daude mendi lasterketak. Jendeak Sakanako paisia bikainetaz goza dezala, halako martxek toki ederrak ezagutzeko ahalbideratzen dutelako, eta ingurumena zainduz egun polita pasa dezala" gaineratu zuen.

## ETB1ek Gailurra Xtreme saioa grabatuko du

ETB1eko Gailurra Xtreme saioak Sakanako Ibilaldian izanen dira, Irati Anda eta Andoni Aizpuru tartean. Batak Ibilbide Luzea osatuko du eta besteak Motza.

## Mendi lasterketak

## Katarain laugarrena Aloñan eta Agirre hirugarrena Agurainen

## Sakandarrak XIII. Aloñako igoeran (22,6 km)

1. Imanol Goñi (Ea)	2:05:16
4. Beñat Katarain (Lak)	2:07:48
17. Jose Luis Beraza (Uhar)	2:19:43
68. Patxi Rubio (Uhar)	2:41:30
157. Javier Gonzalo (Uhar)	3:03:34
176. Sergio Goñi (Olaz)	3:06:37
195. Arantzazu Larrañaga (Uhar)	3:12:21

## Sakandarrak II. Arantzako Mendi Lasterketan (20 km)

1. Xuban Ezeiza (Urnietia)	1:42:53
11. Evaristo Noveleta (Iruar)	1:53:14
76. Igor Artieda (Etx)	2:16:49
177. Erkuden San Martin (Etx)	2:45:06

## Sakandarrak XXI. San Marcos Igoeran (11,6 km)

1. Xabier Lukin (Errenteria)	56:31
16. Jose Javier Beregaña (Uhar)	1:04:34

## Sakandarrak I. San Jorge-Oriamendi lasterketan (11 km)

1. Carlos Iturriaga	48:34
3. Alatz Agirre	51:08
7. Fran Araña	53:40
13. Ioni Araña	1:01:00
21. Asier Leiza	1:03:22

Asteburuan makina bat mendi lasterketa izan dira eta bikain ibili dira gureak. Tartean, XIII. Aloñako igoera, Oñatin (22,6 km). 260 korrikalarik lortu zuten helmugara iristea, Imanol Goñi buru zela (2:05:16). Beñat Katarain lakuntzarrak martxa onean jarraitzen duela erakutsi zuen eta laugarrena sartu zen, bi minutu pasara (2:07:48).

Igandean Xuban Ezeizagailendu zen II. Arantzako mendi lasterketan (1:42:53), 201 korrikalarien artean. Evaristo Noveleta izan zen lehen sakandarra, 11.a (1:53:14). Etalarunbatean, Agurainen jokatu toki I. San Jorge-Oriamendi lasterketa (11 km) Carlos Iturriagak irabazi zuen (48:34). Alatz Agirre arbi-zuarra hirugarrena sailkatu zen (51:08), David Alvarez denboraberdinean. 3. saria konpartitu zuten biek.



**Amaya**  
Okidegi-gozotegia

Araia (Araba)  
945 314 572

Olazti  
948 468 755

Uharteko-Arakil  
667 353 503

Etxarri-Aranatz  
948 461 660

Lantegia: Teileria Aldapa S/N  
Altsasu  
948 562 205

panaderia · okidegia

San Juan kalea, 50  
Altsasu  
670 389 017

BM-supermerkatua

Otadiako Kristo  
Deuna Plaza, 19  
Altsasu  
948 562,185

Zumalakarregi Plaza  
Altsasu  
948 468 026

**Pilota**

# Ezkurdia Buruz Burukoan aurrera

**Retegi Bi 11 tantotan utzi eta gero, final laurdenetan Urrutikoetxea izango du aurkari**

Joseba Ezkurdiak Retegi Bi izan zuen aurkari igandean Gasteizen, Buruz Buruko final zortzirenetan. Aurreko urtean ere Retegi Birekin aritzea egokitu zitzaion arbizuarri eta orduan bezala, garaipena lortu zuen Ezkurdiak, 11 eta 22 gailendu baitzen bere indarra, erresistentzia eta bere bolea indartsuari esker.

Final laurdenetan, arbizuarrik Mikel Urrutikoetxea izango du aurkari. Gidoia errepikatzen da,



iaz ere Ezkurdia Urrutiren kontra aritu baitzen. Aurreko urtean bizkaitarrak irabazi zuen; ea aurtan Arbizukoak errebantxa hartzen duen. Partida gogorra aurreikusten da.

## Buruz Burukoa. Final laurdenak

**Ostiralean, 22:00etan:** Atano III.lean: Rezusta - Altuna (ETB1)  
**Larunbatean, 17:30etan:** Labriten: Olaizola II.a - Bengoetxea VI.a (ETB1)  
**Igandean, 17:00etan:** Bizkaian: Urrutikoetxea - Ezkurdia (ETB1)  
**Astelehenean, 17:00etan:** Astele-nan: Irribarria - Artola (ETB1)

**Triatloia**

# Bikain ekin dio Espainiakoari



**Orihuelako proban bere mailako hirugarrena sailkatu zen Sergio Garcia de Eulate altsasuarrak (4:35:00)**

Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarrak Distantzia Erdiko Espainiako Triatloi Kopan parte hartuko du. Sei proba dira eta lehena asteburuan jokatu zen, Orihuelan (1,9 km igeri, 90 km bizikletan eta 21 km korrikan). Igeriketa sektoretik atzean atera zen, baina beste sektoretan aurrera egin zuen eta postu asko aurreratu zituen. Azkenean, 4 ordu t'erdi baino gehiagoren ostean, bere kategorian, 35-39 urte arteko gizonezkoen taldean, hirugarrena sailkatu zen altsasuarrak (4:35:00), Triatlón Clavería Móstoles taldeko Alberto Lozano Ruiz lehenarengatik (4:29:57) 5 minutu eta 12 segundora.

## Larraga, Eguesibar eta Aitzar-nazabal

Apirilaren 8an Eguesibarko Duatloia jokatu zen. Taldekako erlojupekoan Saltoki Trikideak taldekoak izan ziren garaileak (1:47:20). Sakana Triatloi taldea 10.a sailkatu zen, Aitor Mozok, Sergio Garcia de Eulatek, Francisco Javier Gomezek eta Juan Luis Maizak egindako lanari esker (1:52:38).

Bestalde, igandean III. Larraga Hiria Duatloia jokatu zen. Francisco Javier Gomez 5.a sailkatu zen eta Juan Luis Maiza 6.a, euren kategorian lehena eta bigarrena. Gorka Garcia de Eulate 17.a sartu zen, Ivan Sobredo 23.a eta Juan Carlos Gomez 35.a. Eta larunbatean, II. Aizarnazabalgo Duatloian, Mikel Astiz ihabardarra 17.a sailkatu zen.

**Futbola**

## FEDERATUTAKO TXAPELKETA

### PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

27. JARDUNALDIA

**AMIGÓ 2 - LAGUN ARTEA 2**  
**URROZTARRA 2 - ETXARRI ARANATZ 1**  
 Amigó taldearen kontrako partidatik puntu bat ekarri zuen Lagun Arteak Iruñatik. Lehen zatian lakuntzarrek dominatu zuten eta bi goleko errenta lortu zuen Lagunek, Odonek eta Cruzek sartutako golei esker. Falta zuzen baten jaurtiketarekin lehena sartu zuen Amigók eta partida bukatzeaz, deskontuan, bina berdintzea lortu zuen. Urrozterra eta Etxarriren arteko lehia oso estua izan zen. Urrozterra saiatu zen, baina Etxarririk ongi defendatu zuen eta atsedendia baino lehen gola sartu zuen Bakaikoak. Baina 2. zatian partidari buelta eman zion Urrozterrak. Berdintzea lortu zuen eta partida bukatzeaz zela, garaipenaren gola sartu zuen.

Sailkapena >>

1. Bidezarra	62 p
5. Lagun Artea	39 p
9. Etxarri Aranatz	36 p

Asteburuko jardunaldia

**LAGUN ARTEA - URROZTARRA** (Igandean, 16:15ean, Lakuntzan)  
**ETXARRI ARANATZ - BURLADES** (Larunbatean, 16:30ean, Etxarrin)

## ERREGIONAL MAILA. KOPA

ERREGIONALEKO KOPAKO FINAL ZORTZIRENENAK

Erregional mailako Kopako final zortzirenetarako sailkatu da Altsasu. Igandean Idoiaren kontra jokatuko dute gorritxoek, partida bakarrera.

Kopako final zortzirenenak

**ALTSASU - IDOIA** (Igandean, 17:00etan, Dantzalekun)



## EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA

24. JARDUNALDIA

**ALTSASU 1 - ITAROA HUARTE 2**

Sailkapena >>

1. Osasuna	64 p
12. Altsasu	19 p

Asteburuko jardunaldia

**ALTSASUK** atsedean jardunaldia du.

## ELOMENDIKO TXAPELKETA

26. JARDUNALDIA

Elomendiko Futbol Txapelketan, hirugarren postuari eusten dio Zalduek.

Sailkapena >>

1. Unziti	66 p
3. Zaldua	52 p

Asteburuko jardunaldia

**ZALDUA - ELOMENDI** (Larunbatean, Lekunberrin)

**Futbola**

# Sakanako Futbol 8 Topaketa: kimuak jokoan

Igandean Sakanako Futbol 8 Topaketako kimuen mailako 13. jardunaldia jokatu da Altsasun, Urdiainen eta Olaztin.

## Sakanako Futbol 8 Topaketak. 13. jardunaldia, igandean

**10:00etan:** Kaixo - Tipi-Tapa (Dantzalekun)  
**11:00etan:** Sutegi - Lagun Artea (Olaztin)  
**12:00etan:** Urdiain - Etxarri Aranatz (Urdiainen)

**Areto futbola**

# Magna Gurpea, geldiezina

**Sailkapenean laugarren postura igo dira eta gaur ligako azken partida jokatu dute Peñiscolaren kontra**

Meritu handia dute berdeek. Dua-la bi asteburu, Bartzelonan, orduko liderra zen Bartzelonari 1 eta 6 irabazi zieten Palau Blaugranan. Sekulako erakustaldia egin zuten Imanol Arregiren mutilek. Eta ostiralean, ligako azkenurreko partidari, Jaen hartu zuten Anaitasuna pabilioian. Bi taldeek laugarren postua zuten jokoan eta, partida oso berdintsuan, zorionez 3 puntuak eta 4. postua Sakanan gelditu ziren. Araçak eta Martelek 2 goleko errenta lortu zuten. Dani Saldisek hirugarrena sartu zuen, baina Jaenek bi gol sartu zituen. Azkenean, ederkisufrituta, hiru puntuak eustea lortu zuten berdeek.

## GAUR, PEÑISCOLA

Movistar Inter taldea da liderra (75 puntu). Magna Gurpea laugarrena da (51 puntu). Gaur, ligako azken jardunaldian, Magna Gurpeak 45 punturekin sailkapenean 7.a den Peñiscola RehabMedic taldearen kontra jokatu du. "Laugarren postuari eusten saiaturako gara" adierazi du Imanol Arregik.

## ERREGE KOPAKO SARRERAK

Magna Gurpea Xotak eta El Pozo Murciak Errege Kopako finala jokatu dute maiatzaren 6an Guadalajaran. Sarrerak salgai daude Xotako bulegoetan, Irurtzunen (Lizarra kalea, 5) 12:00etatik 14:00etara.

**Futbola**

# 8 talde I. Ziordiko Futbol 5 Txapelketan

Futbolaz gozatzeko beste aukera bat dute zaleek, asteburu honetan abiatuko baita I. Ziordiko Futbol 5 Txapelketa. 8 talde ariko dira gutzira: Aralar Mendi, Auzomotojorik, Dia Ibaia, Futsal Sakana Irurtzun, Ingenieria Iradi, Leones del Atlas, Los Suaves eta Ziordia.

Ziordiko Udalak antolatu du Txapelketa, hainbat babesleren laguntzarekin.

## I. Ziordiko Futbol 5 Txapelketa. 1. jardunaldia

**Ostiralean, 18:00etan:** Ingenieria Iradi / Auzomotojorik  
**Larunbatean, 18:00etan:** Leones del Atlas / Futsal Sakana Irurtzun  
**19:00etan:** Ziordia / Los Suaves  
**Igandean, 17:30etan:** Aralar Mendi / Dia Ibaia

**Enduroa**

# Marcos Beraza jaioterrian txapeldun

Apirilaren 16an jokatu zen Irañetako Enduroa. Senior mailako txapelketan bere jaioterrian garaile izan zen Marcos Beraza Vitoria (11:29). Irintarrak 17 segundo ate-

# Oh Yeah, Altsasukoak Askeko txapelduna



Altsasuko ferietako liskarren ondorioz auzipetutako gazteen alde Altsasukoak Aske Futbol 7 Lehiaketa jokatu zen Aste Santuan, apirilaren 15ean Dantzalekuko futbol zelaietan. Ekimena arrakastatsua izan zen, Sakana, Araia, Lekunberriko eta Iruñeko 20 taldek parte hartu baitzuten eta Dantzalekura ikusle mordoxka hurbildu zelako. 20 talde horiek 5 multzotan banatu zituzten eta goizean ligaxka jokatu ondoren, arratsaldean kanporaketak eta final handia jokatu ziren. Finala Etxarri Aranazko bi taldek jokatu zuten, Oh Yeah eta The Magiks. Final ederrean, Oh Yeah gailendu zen. Hirugarrena Lakuntzako Kaimanak taldea sailkatu zen.

Txapelketa ostiralean, apirilaren 28an abiatuko da. 7 jardunaldiko ligaxka jokatu da eta ondoren talde onenek kanporaketak jokatu dituzte. Partidak paraje

zoragarrian jokatu dira, Ziordiko txipudi ondoko futbol zelaietan. Aipatzekoa da txapelketan jasotako diru guztia Dravet Fundaziora igorriko dela.

ra zizkion Urko Garmendiari (11:46). Junior mailan Alberto Aranburu nagusitu zen (12:19) eta beteranoetan, aldiz, Alberto Macias (9:24). Bestalde, senior mailako trofeoa Migel Angel Perez Arbinak irabazi zuen (9:21) eta junior mailako trofeoa Markel Baraincak (9:40). Sakandarrek lan bikaina egin zuten.

**GT of Spain bukatu gabe**  
 Marcos Berazak Enduro GP World Championship txapelketarako baliagarria den GT of Spain proban parte hartu zuen asteburuan, Puerto Lumbrerasen. Zirkuituko hautsa zela eta, alergiagatik asma arazoak izan zituen irintarrak eta probako bigarren egunean ez lehiatzea erabaki zuen.



## Automobilismoa



Maniobrak ikusgarriak izaten dira.

## Etzi Irurtzongo Slaloma

Igandean, 16:00etatik aurrera, Akaborro industrialdean

Irurtzongo Larrazpi Gazte Elkarteak eta Nafarroako Automobilismo Federazioak Irurtzongo Slaloma antolatu dute igande arratsalderako, Irurtzongo Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin eta makina bat babeslerekin. Proba Nafarroako Openerako baliaigarria da. Akaborro industrialdean mota guztietako piboteak, ibilbideak eta trabak jarriko dituzte antolatzaileek, eta zehaztutako ibilbide konplikatua osatu beharko dituzte gidariek. Abiadura baino gehiago, pilotuen maniobra ikusgarriak eta gidatzeko trebezia baloratzen da. Izan ere, prestatutako zirkuitua ahalik eta azkarren egitea eta ahalik eta kono gutxien ukitzea, horixe da gakoa.

## Pilota

## Irurtzongo Pilota Txapelketak jaialdi bikoitza ekarriko du

XXV. Irurtzongo Pilota Txapelketaren barruan, bi jaialdi jokatu dira asteburuan Etxararren.

## Irurtzongo Txapelketa: Etxarrengo partidak

**Ostiralean, 19:00etan, promesak:** Landa-Lorea/Ruiz de Larramendi-Ruiz de Larramendi Gil-Garatea / Gurrea-Ruiz.

**Larunbatean, 11:00etan:** Promesak: Canabal-Andueza / Arce-Aizpurua  
Seniorrak: Mediavilla-Medel/Adonis-Aranguren

## Kiroldegia

## Kirola eta osasuna aztergai Irurtzunen

Hitzaldi honekin mustuko dira Irurtzongo 2017ko Kirol Jardunaldiak, maiatzaren 4an, ostegunarekin, 20:00etan

Aurten ere Kirol Jardunaldiak antolatu dituzte Irurtzongo taldeek eta Udaleko Kirol Batzordeak. Maiatzaren 4an abiatuko dira. Irurtzongo Kultur Etxeak hartuko du hurrengo ostegunean, maiatzaren 4an, 20:00etan hasikoden hitzaldi-solasaldia. "Kirola eta osasuna" gaia aintzat hartuta, Irurtzun eta Lekunberriko osasun-zentroetako medikuek hartuko dute hitza, Javier Orejak, Migel Angel Senosiainek eta Mikel Morenok.

## Txirrindularitza

## XXX. Burunda Trofeoan Alberdi, Mintegi eta Irabia sarituak

Intersport Irabiako Aitor Alberdi arbizuarra lehen sakandarra izan zen eta mendiko sailkapena irabazi zuen. Iker Mintegik tartekako helmugak irabazi zituen eta Intersport Irabia probako talde onena izan zen

Igandean eguraldi bikainarekin jokatu zen Burunda Txirrindularitza Klubak Altsasun antolatutako XXX. Burunda Trofeoa (63 km), ikusleek ederki girotuta. 152 txirrindularik hartu zuten irteera eta horietatik 98 iritsi ziren helmugara. Lasterketa ikusgarria esprint oso estuan erabaki zen eta Limousin Kartoiak-Oriako taldeko Julen Dorronsoro izan zen helmugako marra lehena zapatu zuena (1:35:04). Aralar klubeko Intersport Irabiako Aitor Alberdi arbizuarra 7.a izan zen eta bere taldekide Igor Arrieta 8.a, denbora berean.

Tropel nagusia 39 segundora sartu zen. Etxeko Burunda klubeko Quesos Albenizko Unai Aznar 13.a sartu zen. Urko Gorriti (I.I.) 21.a sartu zen, Iker Mintegi (Q.A.) 44.a eta Unai Villalobos (Q.A.) 47.a.

Aitor Alberdi kadeteen lehen urteko sailkapenean lehena izan zen eta berak irabazi zuen ere



Burunda Trofeoko saritu guztiek elkarrekin argazkia atera zuten.

mendiko sailkapena. Tartekako helmugan sailkapeneko saria etxean geratu zen, Iker Mintegi altsasuarra lortu baitzuen. Intersport Irabia izan zen talde onena eta Quesos Albeniz 10.a sailkatu zen.

Bestalde, apirilaren 14an Logroñon lehiatu ziren kadeteak. Unai Villalobos (Q.A.) 6.a sailkatu zen eta Iker Mintegi (Q.A.) 20.a.

## Emakumeak

Larunbatean VI. Barrundiako Udala Trofeoa jokatu zen. CAF Turnkey taldeko Amaia Lartitegi irabazi zuen, esprintean (1:19:55). Bere

taldekide Joana Irastorza etxarriarra 25.a sartu zen. Eta igandean, Busturiako Emakumeen Lasterketan, atzera ere kadeteen mailan Amaia Lartitegi gailendu zen, esprintean (57:28). Nafarroa Ermitagañako Leire Maiza etxarriarra 24.a sailkatu zen, bere taldekide Maria Beraza uhartearra 36.a eta Joana Irastorza etxarriarra 40.a.

## Txikienak martxan

Larunbatean hasi zen eskoletako mailako denboraldia, Berrioplannon. Bikain aritu ziren Aralar eta Burunda klubetakoak.



## Josu Etxeberria, zilarrezkoa

Espainiako Pistako Txapelketetan juniorren puntuazioan zilarrezko domina lortu zuen



Aste Santuan Espainiako Pistakokadete eta juniorren txapelketa jokatu zen Tafallan.

Nafarroako selekzioarekin aritu ziren Josu Etxeberria, Hodei Zia, Bakarne Gonzalez eta Joana Irastorza. Josu Etxeberriak Nafarroa-erendako zilarrezko domina lortu zuen junior mailako puntuazio proban. Bestalde, apirilaren 16an, Agurainen, Jon Barrenetxea gailendu zen (2:01:20). Josu Etxeberriak (I.I.) erorikoa izan zuen baina helmugara iritsi zen, 13. postuan. Ailetz Lasa (Q.A.) 18.a sailkatu zen. Eta larunbatean, Lizarran, Fundacion Lintxuko Joseba Otaola gailendu zen (1:47:08). Ailetz Lasa (Q.A.) 5.a sartu zen eta bere taldekide Iñigo Fernandez 7.a, denboraberean. Talde onena Quesos Albeniz izan zen. Eta igandean, XXIII. Gipuzkoa Klasikoan, Unai Iribar (Euskadi) nagusitu zen eta Josu Etxeberria (Nafarroa) 27.a sartu zen. +www.guaixe.eus

## Zumba

## Zumbathon arrakastatsua

Esklerosi anitza duen Virginia Saezen aldeko Arbizuko Zumbathon solidarioan jendetza hartu zuen parte

Osasun arazoak dituen Arbizuko familia bat laguntzeko antolatu zen, igandean, Arbizuko Zumbathon solidarioa. Herritar talde bati bururatu zitzaion ideia. Eta aurreko astean Karmele Maraño alkaterearen babesarekin aurkeztu zuten ekimena talde horretako Kepa Lodik, Karmen Jakak, Maribel Luisek, Xabier Zabalzak, Nahia Urkiak eta Lorena Alonsok.

Zumbathon Solidarioan jasotako esklerosi anitza gaixotasuna duen Virginia Saez arbizuarrari bideratuko zaio. 40 urterekin, lau seme-alaben ama da Saez, eta bere senarraren gaixotasunarekin, familia honi arazoak biderkatu zaizkio. Zumbathoiarekin, babesa eta arnasa eman nahi izan zaie.

Zumbathona "oso arrakastatsua" izan dela aipatu digu Kepa Lodi antolatzaileetako batek. "Jende asko hurbildu zen Arbizuko kiroldegira, bai parte hartzera eta baita ikustera. 500 sarrera saldu genituen eta parte hartzaileak 200dik gora izan ziren, emakumezkoak gehienak" gaineratu du. Arbizun, Iruñean eta Agurainen klasea ematen duten Ainhua, Leire eta Itziar monitoreen aginduetara zumba eginez gustura ibili ziren. Eta opari zoragarriak zozketatu ziren: Erreal, Osasuna eta Baskonia taldeen kamisetak, Movistar Team taldearen maillota, Joseba Ezkurdiaren kamiseta, Ezkurdiak berak

zozketatu zuena, Julian Iantzik utziako El Conquistador del Fin del Mundo kamiseta, Hesian taldeko kamiseta eta 2 CD, Vendetta taldearen kamiseta eta CD-a, Eroskik prestatutako bi saski... eta abar.

Virginia Saezek berak adi-adi jarraitu zuen Zumbathoi Solidarioa, senitartekoez lagunduta. Asko hunkitu zen eta jendearen erantzuna biziki eskertu zuen.

**Herriari eta udalari eskerrak** Salgai jarritako kamiseta guztiak,



200, saldu zituzten, 10 eurotan. Herritarrez gain, udalaren eta herriko enpresen inplikazioa ere

eskertu zuten antolatzaileek eta aurrerago beste jaialdi batzuk antolatzeko asmoaren berri eman zuten.

IRAKURRI GOZATU ETA OPARITU

LIBURUAK EROSTEKO 30 EUROKO 5 TXEKEREN ZOZKETA

IRABAZLEAK: David Ovejero (Altsasu)  
Laura Imatz (Arbizu)  
Arantzazu Eratsun (Ihabar)  
Xuban Mendiola (Etxarri Aranatz)  
Iratxe Lapuente (Ziordia)

1001 mundu

Txekeak liburutegietan jaso ahal izanen dituzue.

# 40 tanatorios

# IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

## Sagrario Ezkutari Mendiola

Beti gure bihotzean.

Pili, Amaia, Belen, Juanra eta Ixa

## Jabier Uribe Irigoyen

Gogoan zaitugu.

Sakanako Hiltegioko kideak

## Sagrario Ezkutari Mendiola

Zu joan arren, zure alaitasuna gure artean izanen da beti, Txati.

Pellonekoa

## Leoncio Galarza Celaya

jauna

Zure familia

Urdaian, 2017ko apirilak 13

## Javier Uribe Irigoyen

Malkoak ur tanta bihurtzen direnean, minutuak letra eta izarrak musu infinitu zenbat den, orduan jakingo duzu. Infinitu da maite zaituguna.

Etxekoak

Altsasu, 2017ko apirilaren 15ean



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

**Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora**

## Xabier Uribe Irigoyen

San Pedro eguna ez da gauza bera izango zu gabe. Ohore bat bide honetan elkar ezagutu izana.

Milesker denagatik.

Iosebaren koadrila



## Sagrario Ezkutari Mendiola

Zure oroitzen bakoitza fereka bat da, erraza izan baitzen zu maitatzea, ezinezkoa ordea, zu ahaztea. Beti maitatuko zaitugu, ama.

Senarra eta seme-alabak



## Izeba Sagrario

Maitasunez betetako bizitza eskeini zenigun, guztia eman zenigun, hori bihotzean daramagu. Gurekin zaude.

Igoa-Ezkutari senideak

### JAIOTZAK

- Oihan Peña Goikoetxea, apirilaren 13an Altsasun.
- Maren Goikoetxea Ripa, apirilaren 7an Urdaian.
- Katixa Lopetegi Luis, apirilaren 19an Lakuntzan.

### EZKONTZAK

- Jonathan Sanchez Palacios eta Erkuden Zubiria Zelaia, apirilaren 21ean Altsasun

### HERIOTZAK

- Leoncio Galarza Zelaia, apirilaren 13an Urdaian.
- Jacinta Horna Rodriguez, apirilaren 25ean Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

guaixe.iragarkilaburrak.com

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

### HIGIEZINAK

#### LOKALA

Kafetegi bat alokatzen da Altsasun.

Interesatuak hots egin dezatela 666

268 222 telefonora.

### LANA | NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZAK

**Landa hoteleko langilea.** Jatetxe eta harrerarako neska bat behar dugu ostirala, larunbata eta igandeetarako (ez fin-

koak). Euskalduna eta ingelera jakitea beharrezkoak. Hoteleko harreraren esperientzia izatea ez da beharrezkoa. Arratsaldeko lanaldia betetzeko beharko genuke, baina malgutasuna eskatzen dugu. Urritikoa bazara, lan egunetan hotelean gelditzeko aukera ere eskainiko da. Bidali zure Curriculuma naiara@hotelolatzea.com

### IKASTAROAK

**Osasunez zahartzeko.** Zahartzeko aktibo eta osasungarria duten 60 urtetik gorako pertsonen zuzendutako tailerra.

Etxarri Aranazko Gure Ametsa jubila-tuen elkartearen izanena da, maiatzaren 3an, 4an, 8an eta 10ean 17:00etatik

19:00etara.

### Zer da ikasketa kooperatiboa?

Irakasleendako prestakuntza, euskaraz. Maiatzaren 10ean, 15:30etik 17:30era Lakuntzako kultur etxean. Hezkuntza Departamentuaren prestakuntza atala.

### IBILGAILUAK

#### SALDU

**Deuchfar traktorra.** Bigarren eskukoa, atoi eta lurra lantzeko makineriarekin saltzen da. Tel 948 57 63 84.

### TRUKEAK

**Maiatzean euskaraz bizitzeko/praktikatze** asmoz Etxarriko edo Arbizuko

familia batenean bizi nahi nuke. Trukean haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten arituko nintzateke. Magisteritza ikasketak daukat...Kontaktua: 686 582 703. Leire.

### SALDU

**Arkoizozkailua salgai.** Luzera 1,5 metro, oso gutxi erabili dugu eta oso egoera onean da. Tel 618 096 204.

### OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

**Betaurreko progresiboak galdu ditut.** Unanu eta Beriain mendiaren artean. Funda beltz batean sartuta zuden. Tel 626 56 24 41.

### OHARRAK

**Otaiko ermitaren alde.** Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpinak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

**Liburu aurkezpena.** El destino de Ana H. Murria liburua aurkeztuko du Maite R. Otxotorenak maiatzaren 8an, astelehenean, 19:00etan Altsasuko Haritza tabernan.

**Etxarriko Elkartasun eguna.**

Apirilaren 29an izanen den herri bazkari-ko txartelak Leku Ona, Derry eta Xapatero tabernetan daude salgai. Helduak 15 € eta haurrak 8 €.



**ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA:** Ekain Alege eta Idoia Granizo Leitzako Atakabeltz gazte-txean ariko dira gaur, 19:00etan. Guztira 14 eta 18 urte arteko 14 bertsolari ariko dira Eskolartekoan.

# kultura >>

## Dantzari txikien hitzordua



**Larunbatean, 11:00etatik aurrera, Altsasun 100 dantzari baino gehiago izanen dira**

**D**antzari txiki eguna Altsasun bihar ospatuko da. Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantzari txikiekin batera Berako Gure Txokoa dantza taldekoek ere parte hartuko dute. Guztientzako hitzordua 11:00etan jarria dago Udal Musika eta Dantza eskolan. Dantzari, musikari eta begiraleak elkartzeko dituen hamaiketako eginen da han bertan. Eguerdian, Altsasun barna eramanen dituen kalejirari ekinen diote. Zumalakarregi plaza, San Juan plaza, kultur gune pareko zabalgunea eta Foru plaza izanen dira ibilbideko toki nabarmenenak, horietan guz-

tietan dantzariak geldialdiak egin eta erakustaldiak eskainiko baitituzte. 13:00ak pasa direnean eguerdiko saio nagusia egingen dute plazako intxaurrondopean. Guztiek elkarrekin *Agintariena*, *Agurra*, *Fandango* eta *Arin-arina* eta *Txulalai* dantzatuko dituzte.

Saio horren ondoren dantzariak etxeetan banatu eta haietan bazkalduko dute. Baina 16:30erako prest egon beharko dute, Altsasu Musika eta Dantza Eskolako fanfarrearen doinura erromeria egingen dute. Fanfarreak plazako dantzak joko ditu eta nahi duen guztia dantza egitera gonbidatu dute antolatzaileek. Eguraldiak lagunduko ez balu, ekitaldiak Burunda pilotalekuan egingen lirake.

## Mainamikirri, ipuina paperera

**Gaur, 18:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean aurkezpena**

**M**ainamikirri Altsasuko ipuin tradizional bat da. Haren edizio berritua idatzi du Castillo Suarezek. Horretarako, Izaskun Etxeberriak Ageda Zelaiari 1986an egin zion grabazioan oinarritu da. Liburua Josemari Morcilloren, Morkotsen, irudiekin argitaratu da, Fanie-torri edizioak zigilupean. Hor

maketazioaz Enara Intsausti arduratu da. Argitalpenak Mikel Galarza, Izaskun Etxeberria, Yolanda Arrieta, Aitzpea Leizaola, Enrike Zelaia, Xabier Mendigurenek eta Urdiaingo errotakoen laguntza izan du. Liburuaren Eguna dela eta Altsasuko udal liburutegiak antolatutako egitarauaren barruan aurkeztuko dute liburua gaur. Aurkezpenaren ondoren haurrendako tailerra eskainiko du hirukoak.

## Abian da Sakanako pop-rock lehiaketa

**Joan zen larunbatean jokatu zen kanporaketa faseko lehen saioa, Lakuntzan. Garabatos, Dentera eta Kaskatako aritu ziren nor baino nor. Gaiantzeko taldeak gaur eta bihar lehiatuko dira**

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

**M**artxan da Sakanako pop-rock txapelketaren lehen edizioa. Lehiaketa hau ibarrean pop eta rock doinuak jorratzen dituzten taldeak sustatzeko antolatu dute Lakuntzako Udalak, La Banda del Jefe Bigun taldeak eta Hatortxu Rockek, Lakuntzan, eta abian da iragan larunbatez geroztik. Garabatos, Dentera eta Kaskatako aritu ziren kanporaketa faseko lehen saioan, eta antolakuntzako Aitor Gartziaren esanetan, "maila oso altuko" kontzertuak eskaini zituzten. Puntuaziorik altuena Garabatosek lortu zuen (75), Denteraren (68) eta Kaskatakoren (59) aurretik. "Puntuazioak oso berdinduta gelditu dira. Oraindik airean dago dena, hurrengo bi saioen ondoren jakingo baita norzuk diren hiru finalistak", azaldu du Gartziak.

### Gaur, bigarren saioa

Gaur, ostiralean, Atzapar Rock, Innombrables, Zintz eta Embajada taldeen txanda izango da, kanporaketetako bigarren saioan. Entzuleek estilo ezberdinez gozatzeko aukera izango dute. **Atzapar Rock** Ander Goikoetxeak (bateria), Aitzol Gaintzarainek (tronpetak), Ekhi Erauskinek (gitarra), Sara Begiristainek (abeslaria) eta Asier Solisek (gitarra) osatzen dute, eta hainbat abesti propio ditu; kasurako, *Segi aurrera*, *Dena da aldrebasa* edota *Atzapar Rock*. **Unnamables** dagokionez, hau 2015ean sortu zuten Mark Wallerrek (gitarra eta baxua), Kike Arregik (gitarra) eta Mario Da Silvak (bateria), eta geroztik *Gypsy Lover*, *Jueves*, edota *Mariposas* bezalako abestiak sortu dituzte. Beren erreperatorioan folka, bluesa eta rocka da nagusi.

Bestalde, **Embajada** 2016ko garilean sortu zen, Igor Maizaren

(baxua), Mikel Floresen (gitarra), Fernando Jimenezen (bateria) eta Ibai Lanzen (gitarra eta ahotsa) eskutik. Orduetik hainbat abesti propio ekoiztu dituzte, hala nola, *Perdido*, *The Sekta*, eta *No aguantato*. **Zintzek**, bere aldetik, rock, punk eta hardcore estiloak uztartzen ditu gehienbat. Taldea Iturmendiko lau lagunek osatu zuten iazko urtarrilean: Javier Berazak (baxua), Jose Luis Muñoak (gitarra), Txema Nuñezek (ahotsa) eta Asier Lantzek (bateria). Beren abestien artean daude *Sua!*, *Gezur saltzaileak* eta *Ez zaitezte lasai bizi*.

### Larunbatean, hirugarrena

Behin lau talde horiek beren talentuaren berri eman ostean, larunbatean Alerta Gorria, SLD, Brutal Room eta Shockdown arituko dira aurrez aurre, kanporaketa faseko hirugarren eta azken saioan. Taldeen osarari eta ezaugarriari erreparatu, **Alerta Gorria** Arbizuko Punk Oi! talde bat da, eta Joanes Satrustegik (bateria), Asier Reparazek (ahotsa), Ander Garciak (gitarra), Jon Iriartek (baxua) eta Urtzi Markinezek (gitarra) osatzen dute. 2009an sortu zuten taldea, eta orduetik makina bat abesti sortu dituzte: *Piztia basoan*, *Batera*, *Etxera...* **SLDk**, bere aldetik, lau kide ditu: Mikel Garcia (ahotsa), Erik Andueza (gitarra), Javier Santano (bateria) eta Javier Zelaia (baxua). Beren abesti propioen artean daude *Geurea*, *Etsai* eta *Haizeak* narama.

**Shockdown** dagokionez, honek batik bat metala jorratzen du. Alvaro Solanok (gitarra), Ander Urkijok (baxua), David Alonsok (ahotsa) eta Fernando Jimenezek (bateria) osatzen dute, eta, besteren artean, *Medicina*, *Paso en falso* eta *Sin respuesta* abestiak sortu dituzte orain arte. **Brutal Room** ere lau kidek osatzen dute: Hanot Gardek (gitarra), Endika Jakak (bateria), Jokin Artiedak (ahotsa) eta Urtzi Azkargortak (baxua). Berriki sortutako taldea da, baina jada baditu hainbat abesti propio, esaterako, *Hotzikarak*, *X*, edota *Cervicine man*.



Goierri  
eskola

## ERABAKI ZURE BIDEA

Goierri Eskolak Ate Irekien Jardunaldira gonbidatzen zaitu.  
Ezagutu ezazu Lanbide Heziketako gure eskaintza.

• Goi Mailako zikloak • Erdi Mailako zikloak • Oinarrizko LH

**Maiatzak 6, larunbata, 10:00etan**

[www.goierrieskola.eus](http://www.goierrieskola.eus)

Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062



Ipuin ezagunaren **bertso-bertsio** arbizuarra

**L**iburuaren eguna dela eta hainbat jarduera izan ziren joan den astean Arbizuko udal liburutegian. Horien artean Josema Leitzak asmatutako *Hiru txerri txoak Sandindegin* bertso-ipuina marrazteko tailerra izan zen. Egileak berak azaldu digunez, "ez dakit ipuinaren barruan beste ipuin bat den, edo ipuin ezagunaren beste bertsio bat". Ipuineko pertsonaia ezagunak oinarri gisa hartu zituen Leitzak, "baina gainean daramaten kartoizko izaera alde batera utzi eta hezur-haragizko bihurtzen dira. Eta inongoak eta nonahikoak izatetik Arbizuko Sandindegiko zotolakoak izatera pasa dira. Kiroldegian ibiltzen dira, liburutegian, soziedadean..."

Leitzak bertso-sorta liburutegiko otsaileko ipuin-irakurraldirako prestatu zuen. Egileak azaldu digunez, "lauko txikiak dira narraziotan erabilitakoak, eta *Ene Kantak* bildumako Astonautak sortako Ilargi Amandrea doinua leloa eta testualizazioan. Testu soilari musika, erritmoa, errima edo kadentzia desberdinak erantsen sortzen den giroa berezia izaten da. Irakurtzeko baino, entzuteko eta ikusteko testua sortzen da". Guztira 65 koplak inguru dira, edo 20 minutuko emanaldia.

Arbizuko bertsolariak esan digunez, aipatutakoa da orain arte



paperean duen bertso-ipuina baka-rra, "baina beste batzuk badituzten buruan, denbora dudanean idazteko prest". Ez zaio burutik bertso-ipuina argitaratzea pasa. Ikusentzunezko gisa aukera legokeela iruditzen zaio. Esopo eta Fedoren 40 fabula bertsoz jarriak ditu, "batzuetan itzulpen literala eta beste batzuetan bertsio askea. Ikas-material bezala erabiltzen dituzte eta horiekin zer edo zer egin litekeela iruditzen zait".

#### Nor dator haurrendako ipuin bat irakurtzera?

Izenburu horrekin, Arbizuko libu-

rutegian ipuin-irakurraldiak egin dira hilean behin, 2015eko irailaz geroztik. Iraila eta maiatza bitartean, hilabetero arbizuar heldu bat pasa izan da herriko txikiei ipuinen bat kontatzea. Horrela, haurren irakurzaletasuna eta istorioak adierazteko gaitasuna lortu nahi dute. Eta, aldi berean, gurasoei ere nabarmendu nahi diete zein garrantzitsua den beren seme-alabekin ipuinak eta istorioak partekatzea.

#### Ipuin kontalari arbizuarrak

Edozein arbizuar aritu daiteke haurrei ipuinak kontatzen, libu-

rutegitik pasatu beharra dauka horretarako. Makina bat izan dira orain arte ekimenean parte hartu dutenak: Pello Reparaz, Joseba Ezkurdia, Olentzero eta Mari Domingi, Hassana Aalia, Maia Ginea, Arbizuko Bilguneko emakumeak, herriko haurrek, Castillo Suarez, Pello Lazkoz, June Gartzia de Albeniz eta Ane Lizarraga (Sakanako futbol taldekoak), eta herriko 6 emakume. Urtero errepikatzen duen baten bat badago, esaterako, Maia Ginea ilbeltzeko aurreneko astean Kamishibai ipuinak kontatzen ditu eta izugarriko arrakasta izaten du.

## Irurtzungo festak

iragartzeko kartel lehiaketa deitu dute

**I**rurtzungo festak garilaren 19tik 23ra izanen dira aurten. Haiek garaiz iragartzeko kartela nahi du udalak eta, horregatik, 27. kartel lehiaketa antolatu du udalak. Irurtzungo festekin zerikusia duten gaiei buruzkoa izan beharko dira aurkezten diren kartelak. Lehiaketak bi maila izanen ditu: haurrena, 14 urte bitartekoa, eta helduena.

Lehiaketara aurkezten diren kartelak jatorrizkoak eta argitaragabeak izan behar dute. Eta bete beharreko neurri batzuk ere izan beharko dituzte: helduen mailan 42 x 60 cm eta haurren mailan 29,5 x 42 cm (A3), beti ere, kartulina gainean aurkeztuta. Plika sistema erabili beharko da lanak aurkezteko. Lan guztiek, ezinbestean, honako testua izan behar dute: *Irurtzungo festak uztailak 19-23 julio 2017 Fiestas de Irurtzun*. Lanak maiatzaren 31ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Irurtzungo udaletxean. Maila bakoitzeko sari bakarria emanen da, 150 euro haurren mailan eta 400 euro helduen mailan.

**Goiko**  
LOREZAINNTZA

*Lorezaintza Ferbitzua*

Mantentze lanak.

Lorategien diseinua.

Aholkularitza...

Tepe ezartzea.

Ureztatze sistemak.

*Etxerako Ferbitzu Berria*

Loreak eta landareak etxera eramaten ditugu.

Landareak balkoietan jartzen dira.



Aritz Goikoetxea | 667 848 832



# Asteburua, Kulturaz aske

**Domeka bitartean hamaika ekimen antolatu dituzte Altsasun, "kulturaren bitartez gure lagun askatasuna eta guztiz libre egon behar dutela aldarrikatzeko". 20 talde baino gehiagok parte hartuko dute**

**A**ltsasuko kultur eragileek astebururako egitarau zabal prestatu dute, feriatako liskarragatik preso dauden hiru gazteen askatasuna aldarrikatzeko eta gainontzeko auzipetuei elkartasuna azaltzeko. "Kulturaz eta aldarrikapenez blaitu nahi duen altsasuar, sakandar eta guztiei" luzatu diete parte hartzeko gonbidapena.

Asteburuko izendatzeko *Kulturaz aske* leloa aukeratu dute, antolatzaileen ustez "ederki laburbiltzen duelako zer aldarrikatu nahi dugun: kultura, hartaz blaituko garelako asteburu guztian". Izan ere, prestatutako egitarauan dantza, kanta, pintura, musika eta beste izanen dira. "Gure herriaren kultur aberastasuna erakutsiko dugu. Harro egoteko modukoa da Altsasuko kultur eragileen bizitasuna,

honek egiten baikaitu herri".

Leloko *aske* hitzari dagokionez, antolatzaileek esan dutenez, "aske bizi nahi dugu gure herrian. Altsasuarren arteko elkarbizitza aske bat nahi dugu". Gaineratu dutenez, "gure herrian aske bizi nahi dugun bezala, aske nahi ditugu gure lagunak, lehenik kartze-lan dauden Oihan, Jokin eta Adur. Altsasun nahi eta behar ditugu, ya! Ez gure herriatik 500 km-tara, ez 40 minutuko bisitak jasotzen..." Hiru presoak aske nahi dituzten moduan, aske nahi dituzte gainontzeko auzipetuak ere, "ez dugulako polizia, hedabide eta epaitegi muntaia hau onartzen".

## Hiru nabarmen

Astebururako egitarau zabal prestatu badute ere, antolatzaileek hiru ekimen nabarmendu nahi izan dituzte. Lehenik, ostiral gauean Burunda frontoian izanen den ikuskizun erraldoia, zeinetan herriko hainbat musika, kantu eta dantzari taldek parte hartuko duten. Sarrerak dagoeneko Iortia kultur gunean eros daitezke 5



eurotan. Bigarrenik, larunbatean, 18:30ean Iortia kultur gunean izanen den mahai-ingurua. Hartan bost altsasuarrek haien bizi-

esperientzia elkarbanatuko dute, "herri bezala izan ditugun erronkei nola aurre egin diogun protagonisten ahotsetik entzuteko".

Azkenik, igande goizean Foru plazan haurrendako izanen diren tailerrak eta bestelako ekintzak nabarmendu dituzte.

## Egitaraua

### Apirilak 28, ostirala

**19:00etan** Altsasuko aske, kontzentrazioa udaletxe parean.  
**19:30ean** Pintxo potea eta kantu potea Zubi Ondorekin.  
**22:30ean** Haize Berriak banda, Erkudengo Ama abesbatza, Tarima Beltza, Etorkizuna dantza taldea, Dantzarima, Enrike Zelaia eta Trasteando.

### Apirilak 29, larunbata

**10:00etan** Dantzari txiki eguna.

### Fanfarrea eta trikitilariak.

**11:30ean** Txistulariak.

**17:00etan** Dantzariak eta fanfarre txikiarekin erromeria, plazan.

**18:00etan** Bargagainen begiradapean mahai-ingurua Iortia kultur gunean. Parte-hartzaileak: Satur Leoz (Radio Euskadi), Esther Arregi eta Eider Leoz (mugimendu feminista), Luis Diaz (Mexikotik etorritako altsasuarra), Iosu Imaz (Altsasu Memoria) eta Mari Romero (idazlea).

**20:00etan** Kontzertuak: Garabatos eta Kaskatako, gaztetxean.

### Apirilak 30, domeka

**11:30ean** Dianak, gaitariak.

**12:00etan** Haurrendako tailerrak: zirkoa (Alain Flores) eta haur arte-esperientzia (Itziar Nazabal); puzgarriak eta jolasak.

**12:00etatik 13:00etara** Zapore antzaki, Helena Santano eta Txen dj (soinu kolorea), plaza inguruan. Dj-k Arkangoa kalean.

**19:00etan** Akabera ekitaldia: Alberto Barandiaran, dantzariak, Flores Ahizpak, Javier Corres eta Izaskun Etxeberria.

## Musika Gelatik **Kontzertu Erraldoira**



**Ostegunean, 17:00etan, Altsasuko kultur guneko zabalgunean (euriarekin frontoian)**

**T**xirula mordoa, saxofoiak, tronboiak, akordeoiak, txeloa, gitarrak, baxuak eta bateria. Horiek dira Altsasu eta Alaitz (Barañain) institutu etako ikasleek Kontzertu Erraldoian joko dituzten tresnak. Ikasturte osoa daramate emanaldia musika klasean prestatzen. Gainera, musika tresnaren bat jotzen duten ikasleek emanaldiraiko propio trebatu dira azken hilabeteetan. Haiekin arituta Inigo Aldunate Burguete irakaslea.

Aurtengo Kontzertu Erraldoian Altsasu, Biurdana eta Alaitz institutu etako DBHko 1, 3 eta 4 mailako ikasleek parte hartzen dute. Baita azken ikastetxeko musika

eta arte eszenikoetako batxilergoko ikasleak ere. Guztira 600 ikasletik gora. Hiru ikastetxeen artean hiru emanaldi prestatu dituzte eta bakoitzean bi institutu etako aritzen dira. Biurdana institutu etako Irurtzongo Atakondoa eskolako DBHko erreferentziazko ikastetxea denez, aurten kontzertua Iruñetik

atera eta Irurtzunen egin zen, asteartean.

Emanaldi egunean ikasleek egun osoa elkarrekin ematen dute. Goizean bi orduko entsegua egingo dute. Ondoren eta emanaldia iritsi bitartean haien arteko harremanak sendotzeko aukera izaten dute.

Egitaraua	Egilea
<b>Kantua</b>	Bizardunak
500 urte	Leonard Cohen
Aleluia	ABBA
Mamma mia	Mikel Urdangarin
Txatxamatxalinatxu	
<b>Koreografia</b>	
Highway to hell	AC/DC
Sagarra jo	Kalakan
Ellos dicen mierda	La Polla Records
Aldapan gora	Huntza
Som	Obrint Pas
Azkaindarrak	Muxikoak

## Ogibide zaharrak argazkitan

**Domekatik maiatzaren 7ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara, eta domeketan, 19:00etatik 21:00etara**

rren 150 bat irudi izanen dira erakusketan ikusgai

**A**ltsasuko Iortia kultur gunean *Topaketa antzina-ko lanekin* argazki erakusketa izanen da ikusgai. Maiatzeko gurutzarekin batera artisauteza azoka egiten da eta han hainbat artisautean ikusteko aukera izaten da. Urteetan azoka horietan Fernando Sayasek eta Mikel Nazabalek argazkiak egin dituzte. Bi argazkilari altsasua-

### Ferriaren 25. urteurrena

Argazki erakusketa horrekin maiatzeko gurutzeko feria berreskuratuzela 25 urte ospatu nahi da. Gainera, hitzaldia izanen da heldu den ostiralean, 20:00etan, Iortia kultur gunean: Fermin Leizaola, Aranzadi zientzia elkarteko kidea artisautezaren inguruan ariko da. Etnografiaren inguruan hainbat ikerketa egindakoa da, baita Altsasun ere. +www.guaixe.eus

**Mank** SAKANA

**AHO BETE AMETS: HAUR POESIA LANTZEKO LANTEGIA**  
YOLANDA ARRIETA IDAZLEAREN ESKUTIK

GURASO, ZAINTZAILE, IRAKASLE, IRAKASLE-GAI, MONITORE ETA LIBURUTEGIKO ARDURADUNENDAKO.

MAIATZAREN 6AN LARUNBATAREKIN 10:00ETATIK 13:00ETARA ETXARRI ARANAZKO KULTUR ETXEAN.

LANTEGIAN PARTE HARTU NAHI DUTENEK IZENA EMAN BEHARKO DUTE ALDEZ AURRETIK [ouskaral@sakana-mank.eus](mailto:ouskaral@sakana-mank.eus) HELBIDEAN. TOKIAK MUGATUAK IZANEN DIRA. MATRIKULA 10 EUROKOA IZANEN DA. BERTARATZEN DIRENEK AHOZKO HAUR POESIAREN ONURAK ETA BALIABIDEAK EZAGUTUKO DITUZTE MODU PRAKTIKOAN. MATERIAL GAURKOTUA NON TOPATU ERE ERAKUTSIKO ZAIE.

ETXARRI ARANAZKO Udala



## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 15%	euria: 40%	euria: 15%	euria: 25%	euria: 5%	euria: 50%	
Min: 3 Max: 11	Min: 5 Max: 20	Min: 11 Max: 17	Min: 6 Max: 16	Min: 10 Max: 15	Min: 9 Max: 21	Min: 10 Max: 23	

## : temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	27	0	4.2
Etxarri A.	26.4	-2.5	4.5
Altsasu	27	0	9.9
Aralar	18	-3.8	8.5
Urbasa	-	-	-

## : ilargiaren aldia>>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	3	10	19	25

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

**Etxe pasiboetarako egokia**

5 9000

**Isolamendu nukleo indartsua**

IKD

**Beirak lehorrean jarrita**

STV

**Aparteko azala koloreztatua**

ayyachibi

## Bazkide zozketa

APIRIBILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua  
Lacturale: esneki lotea  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan  
Magna Gurpea: 2 sarrera  
Aquarium: sarrera bat

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10  
Lacturale: esneki lotea  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan  
Magna Gurpea: 2 sarrera  
Aquarium: sarrera bat

Ekain berri

CAMPING ARTAZA

G

gaztezulo

# >> 11 galdera

Santi Ijurko

Etxarriko SDI inprentak 20 urte egin ditu

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



# Ospakizunak

Gonbidapen-txartelak  
Oparietarako-txarteltxoak

## Jatetxeak

Menu-txartelak

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

**1. Hasteko, zer da inprenta bat?**  
Inprentaren izena SDI da. S hizkia gaztelaniako "servicios"-etik dator. Beraz, hasteko, inprentan zerbitzu bat eskaintzen dugu. Komunikazio eta diseinu zerbitzu bat. Inprenta bat hainbat ideia paperean islatzeko zerbitzu bat da, aldi berean, jendearengana iristeko eta zerbitzu bat emateko. Orain paperaz aparte, beste euskarrietan egiteko aukera ematen dugu ere.

**2. Zergatik inprenta bat?**  
Yolanda emaztearekin batera ireki nuen. Ni Ufesan ari nintzen lanean. Ufesan inprentako produktu asko ikusten genituen eta beti oso erakargarria iruditzen zitzaidan. Momentu bat iritsizen, non eskaintza zegoela ikusi nuen. Behar bat zegoen. Guk inprenta normala, offseta, ordenagailua eta gero beste pausu hori eman genuen ere, digitala.

**3. Beraz, 20 urte hauetan asko aldatu da teknologia. Nola egokitu zarete?**  
Ikusten dugunean pausuak ematen direla, pausu horien atzetik goaz. Ez zaigu kostatzen. Ferietan egoten gara, eguneratzen gara. Lehendabiziko ideia zerbitzua ematea da, inprentako zerbitzua eta komunikazio zerbitzua. Hortaz, inguruan dauden gauza guztiak begiratzen ditugu. Guk tirada handiak zein txikiak egiteko aukera genuen. Horrek merkatuan beste toki batean kokatu gintuen.

**4. Zer nolako lanak egiten**

**dituzue?**  
Gure eskaintza oso handia da. Gure ideia izan da beti denondako lan egin ahal izatea eta, horregatik, gure enpresa edozein motako jendeari eta beharrei zerbitzu bat eman ahal izateko prestatuta dago.

**5. Nola da lan baten prozesua?**  
Dena zerbitzuarekin lotuta dago. Duela 20 urte jendea etortzen zen eta ez zekien zer egin nahi zuten. Ideia batekin etortzen zen eta ideia horri tresna guztiak eman behar genizkion. Batzuetan diseinua da, beste batzuetan diseinua eta inprimatzea eta beste batzuetan bakarrik inprimatzea. Guk proposamenak egiten ditugu eta bezeroaren ideiekin uztartzen ditugu. Berak esango digu garestia den edo ez. Hori nahi duen edo ez. Hogeita urte hauetan bezeroekin lotura berezi bat lortu dugu, konfiantzazko harreman bat sortu dugu.

**6. Urte hauetan bezeroen eskaria aldatu da?**  
Gu merkatu moldatu gara, eta askotan merkatuak gure lanamoldatzen du. Guretik belaunaldi ezberdinak pasatu dira. Adibidez, aitarekin hasi ginen lanean eta orain semeak jarraitu du negozioarekin. Hor egon gara, lan oso desberdinak egiten eta lanean jarraitzen dugu.

**7. Zer tresnak erabiltzen dituzue?**  
Gaur egun makinek prozesuaren lan asko egiten dituzte eta horrek produktua asko merketzen du. Hortaz, bezeroari produktuaren ale bakarra edo nahi duen kopu-

ru guztia eman ahal zaio.

**8. 20 urtetan, beraz, tresnak asko aldatu dira?**  
Lehen makina batean inprimatzen zen, beste makina batek produktuak plegatzen zituen eta beste batean moztzen zen. Orain makina moduluak saltzen dituzte eta zuk paper txuria sartzen duzu eta lana bukatuta ateratzen da.

**9. Papera desagertuko da?**  
Paperagero eta gutxiago erabiltzen da. Baina beharren arabera. Nik, argi eta garbi esaten dut katalogoak eta horrelakoak jende pila batek paperean irakurtzen dituela, eta beste askok pantailan ikusten dutela. Horregatik, orain bi aldeak ari gara uztartzen. Baina merkatua badago. Jende helduarendako, edo, besterik gabe, protokolo batzuk daudelako oraindik ere.

**10. Zer produktuetan ikusi duzue jaitsiera handiagoa izan dela?**  
Liburuak tirada motzagoetan egiten dira. Hasieran tirada txiki bat egiten duzu eta nola saltzen den ikusten duzu. Ondoren, beste tirada txiki bat. Eta ongi saltzen bada, tirada handiagoa egiten duzu.

**11. Etorkizunerako zer?**  
Tresna gehienak jendeak erabiltzen ditu jada, sakelako telefonoa, tabletak... Gu horrekin lanean hasi gara. Oso azkar ari da dena aldatzen eta ezin jakin. Baina guk moldatu beharra daukagu, orain arte egin dugun bezala.

Osorik: www.guaixe.eus